



ARGIA

TXORIEN MIGRAZIOA

***Milaka urtetako fenomeno
aztoratu du klima aldaketak***

24-29. orrialdeak

2.890 | 2024 / 10 / 27 | 4,00 €



**Etorkizuneko
hilerriez gogoeta
Antzuolan**
30 | GIZARTEA



**'Abentura erraldoia'
liburuaz egileekin
solasean**
44 | HAUR LITERATURA



LARRUN #300
Eskuin muturra eta
sare sozialak

ARGIA EGUTEGIA 2025

Hurrengo urtean ere, egunero efemeride bat.

Historiografia ofizialak albo batera utzi ohi dituen pertsonekin, egungo mundua hobeto ulertzen lagunduko diguten gertaerak errepasatuko ditugu urteurrenak aitzakia hartuta.

"Oroimen historikoa ez da iraganeko nostalgia hutsa, tresna bat da gaurko injustiziaren aurkako borrokan"

Eduardo Galeano


ARGIA

40€

Euskarria

45€

Egutegia +
Pago-egurrezko
euskarria

Egutegia

10€

Aurre-salmenta:

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

 ARGIA EGUTEGIA
2025

Egunero efemeride bat

 ARGIA 2025

IZENDEGIA	1	2	3	4	5	6
EGUTEGIA	7	8	9	10	11	12
ITASAGARRA	13	14	15	16	17	18
ITASABARRA	19	20	21	22	23	24
ITZEGARRA	25	26	27	28	29	30

22
ASTEARTEA

AMA LURRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO IRUDIA: UNSPLASH / JORDI RUBIES

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | TERE MALDONADO
- 21 | MIKEL BASABE
- 21 | CASTILLO SUÁREZ
- 22 | BEÑAT IRASUEGI

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



30 | ETORKIZUNEN HILERRIAK

Antzuolan egin duten gogoeta parte-hartzailea azaldu du Jon Tornerrek erreportajearen. Haur, gazte eta helduei galdetu diete nolakoa izan behar lukeen hilerriak, zer funtzio bete behar dituen eta lekua nola egokitu beharko litzatekeen. Oiartzungo udal beilategiaren esperientzia ere jaso du bertan.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Irango programa nuklearra eraso? Adituek diote ezetz, denboraren orratzak baietz
Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | YUN PING

"Inor ez da gauza bakar bat, ezta gauza oso itxi bat ere"
Danele Sarriugarte

24 | INGURUMENA | TXORIEN MIGRAZIOA

Enigma eder baina mehatxatu hori...
Jenofa Berhokoirigoin

34 | NAZIOARTEA | ALEMANIAKO EZKERRA

BSW geratzeko etorri da
Xabier Letona

44 | KULTURA | "ABENTURA ERRALDOIA" IPUINA

Adur Larrea eta Gorka Bereziartua: "Haurrek errazago barneratzen dute magia eta ezustekoa"
Mikel Garcia

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua

Lehentasunezko

Inguru gertuenetik hasita, munduan barrena biderkatu dira turismo masiboa sustatzen duten politika eta projektuen aurkako herritarren protestak. Gutxitxo, baina badira gobernu batzuk ere lege bihurtzen ari direnak aldarrikapen horietako batzuk. Ez da "euskal oasiaren" kasua. Proiektua "definitzeko" badago ere, "lehentasunezkoa", "alboratu ezinekoa" eta "nazio proiektua" dela diote gurean, biosfera erreserba baten erdi-erdian milaka turista arrantzatze-ko museo itxurako amua jartzea. "Sekula ez da bat etorriko bertoko herritarren eta naturaren beharrezanekin" oihukatu dute milaka ezta-rik zapatuan, Bizkaiko Aldundi eta Jaurilaritza jeltzaleek handitu ez dezaten AHT eta Supersur moduko etorkizunik gabeko proiektu handiusteen zerrenda. Gernikako manifestazio jendetsuak argi utzi du atzera ere erakunde publiko horiei inposaketaren bidea baino ez zaiela geratzen beste Guggenheim bat Bizkaian jartzeko.

GUGGENHEIM
URDAIBAI
BUSTURIALDEAREN ETORKIZUNA



“Historian lehen aldiz, galizieraz hitz egiten duten pertsonak gutxiago dira gaztelaniaz hitz egiten dutenak baino”

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Galiziako Estatistika Institutuak galizieraren egoeraren inguruko inkestaren azken datuak ezagutarazi ditu. Ezagutza eta erabilerak, biek, egin dute atzera. Galera handiagoa da adin tarte gazteenetan. 5 eta 14 urte artekoen herenak adierazi du galiziera gutxi edo batere ez dakiela. Marcos Maceira, A Mesa pola Normalización Lingüísticaren presidentea elkarriketatu dugu.

Hondamenditzat jo dituzu azken datuak.

Aspalditik ari ginen ohartarazten egiten ari ziren hizkuntza politikarekin hau gertatuko zela. Historian lehenengo aldiz, galizieraz hitz egiten duten pertsonak gutxiago dira gaztelaniaz hitz egiten dutenak baino. 15 urtetik beherakoen datuak dira bereziki kezkarriak. %32,4k dio ez dakiela ezer.

PPren Gobernuaren hizkuntza politika aipatu duzu.

Zeren emaitza da? Hasteko, espainolaren hegemoniarena. Ez da gauza berria, historikoa da. Bestalde, 2009tik aurrera PPK ezarri dituen hizkuntza politikek beherakada azkartu dute. Espainolaren hegemonia testuingurua zen, eta giro

horretan hizkuntza politikek galiziera erabiltzen zen eremuak gehiago murriztu dituzte.

Horrek muturreko emergentzia linguistikora eraman gaitu. Politika horiek ez badira zuzentzen, eta ez bada bermatzen galiziera eremu guztietan eta erabilera guztietarako egotea, oso zaila izango da leheneratzea.

Bitxia da, zeren diagnostikoarekin, teoriar, indar politiko guztiek bat egin zuten. Helburu eta neurri zehatz batzuk jarriak daude 2004tik, galizieraren normalizazioaren plan orokorra egin zenetik, baina PP gobernura iritsi zenean zakarrontzira bota zen. Ez zen ezer aplikatu eta hau da emaitza.

Ez zaudete emaitzekin bereziki harrituta, baina tarte laburrean beherakada handia izan da.

Neurrian gaude harrituta. Hezkuntzan Matematika, Fisika, Kimika eta Teknologia galizieraz ematea debekatu dute; ia erabat baztertu dute galiziera Haur Hezkuntzan; Xuntak eskainitako material didaktiko digitala ikastetxeen %60an dago ezarrita eta ia ez dago ezer galizieraz... Hezkuntzako egoeraren adibide batzuk baino ez dira. Administrazioan

helburua zen edozein bulego publikotan sartzen den herritarrari harrera galizieraz egitea. Inon ez da betetzen. Justizia alorrean, adibidez, erabilera %1 baino gutxiagokoa da, programa informatikoak ez dauka galizierazko aukerarik, justiziako langileek ez daukate hizkuntza ezagutzaren derrigortasunik... Telebista publikoak umeentzat daukan eskaintza %2,7koa da. Antzeko egoeran daude aisialdiko ekintzak eta ekonomia alorra, adibidez.

PPk galiziera etxeko kontua dela azpimarratzeko estrategia darabilela diozu.

Gaia eremu pribatura eramaten ari da, galiziera jakitearen erabakia norberarena edo familiarena dela esaten du. Gaur egun, galiziera erabiltzeko borondatea izanda ere, aukerak falta dira. Kanpotik etortzen den edonork, Galiziako kale batean ibiltzen bada, eta herriaren neurriak ez dauka garrantzirik, ez du antzemango lehen kolpean Herri honetan bertako hizkuntza bat dagoenik, nahiz eta baduen nolabaiteko presentzia soziala. Zeren dena dela, %46k dio beti edo ia beti hitz egiten duela galizieraz, baina eskaintza eta aukerak ez dira, inondik ere, ehuneko horretara gerturatzen.

Esan dudan moduan, azken hamabost urteetan ez da ezer egin. Aldatzeko ezer egiten ez bada, bost urte barruko emaitzak okerragoak izango dira. Dena den, gauzak aldatzeko aukerak daudela uste dugu.

Daturik kezkarrienak adin tarte txikienetakoak dira?

Bai, alde handiz. Belaunaldi arteko ebaketa izugarria da. Ezagutza eta erabilera datuak askoz baxuagoak dira gazteen artean, familiako erabilera baino. %40k dio familian galizieraz egiten duela. Baina familatik kanpora ez da erabiltzen. Batek, belaunaldi arteko transmisioan apurketa dago, baina bestetik, familiaz gaindiko faktoreen ondorioz umeek hizkuntza erabiltzeko aukera gutxiago dituzte. ●



MATERIALISMO HISTERIKOA

Begiratu ondo



UXUE APAOLAZA LARREA

Idatzi nuen behin esnea gainezka nola, halaxe hurbiltzen ginela batzuk zutabeetako orrialde zurira; ezin barruan eutsi, ezin azaldu gabe utzi. Presaka idatziak dirudite, presaka irakurtzeko dirudite. Esan genuen bazirela gerorako utzi beharreko gaiak ere, mingarriegi izaki, forma eman ezinez. Zutabegile guztioi ikusten dugu geure burua noizean behin zerrenda zutabeak egiten, hainbeste horroreren artean aukeratu ezinik. Badira “ezin dut gehiago” zutabeak ere. Badaude “ezin dut gehiago” egunak ere, asteak ere.


Baina tantaka... Batek ekartzen dizu landare bat, kaktus txiki bat, badakielako ez duzula ureztatuko. Beste batek bidali dizu onddo baten argazkia, bere bailara kuttunean hartua. Kanta bat, kursia, behar bezain kursia beste batek. Bilera hasi baino lehen esku bat zureari eusten, burua altxatu, eta begirada bat, zu eusten. Ikasle baten mezua “eskerrik asko ematen diguzun konfiantzagatik”. Gutun bat eskutik eskura emana, papera borobil batean zimurtuta zakarretarako balitz bezala. Baina kutun bat da, poltsikotik hunkitzen duena. Bazkari bat bere balkoian, kuxinetan eseri eta Martini botila hustu. Joan lasai, egongo naiz ni umearekin. Zu eta haurra pasatzeko portaleko ateari eusten dion bizilaguna, eta irribarre egiten dizuna, “animo”. Akorde batzuk bere gitarran.

Badaude “ezin dut gehiago” egunak ere, asteak ere. Eta ahal izateko, leihotik begiratu eta edertasuna identifikatzen jakin behar da. Batzuetan zerua da, besteetan txokolatezko turroia. Baina gehienetan, dezepzionatu gaituen giza espezieko kide baten keinu bat da. Eta edertasuna arnasteko gai naizenean, oso lista sentitzen naiz. Edertasuna da ikasgai garrantzitsuen. Begiratu ondo. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

Migrazioa

Italiak 16 errefuxiatu deportatu ditu Albanian eraiki duen “harrera-zentro” batera, Meloniren Italiaren eta Albaniako Ramaren arteko akordioa medio. Giza Eskubideen defendatzaileek gogor kritikatu dute, baina EBko herrialdeek gauza bera egitea proposatu du Von der Leyenek.

Oroimen historikoa

Donostiako La Cumbre Jauregia biktimen aitortzarako, erreparaziorako eta dibulgaziorako gunerik bilakatzeko proposamena egin dute memoriaren inguruan dabilen hainbat taldek eta Joxean Lasa eta Joxi Zabalen senideek. Eraikina Donostiako Udalaren eskutan geratuko da.

Literatura

Falta ziren Euskadi Literatura sariak iragarri dituzte. Aiora Jakak irabazi du Euskarazko Literatura Itzulpena saria (*Independenzien eguzkiak*), Jon Urzelaik Saiakera Euskaraz atala (*Su festak*) eta Julia Otxoak Gaztelaniazko Literaturarena (*Bajo los astros de la repetición*).

Aparkalekuak



ULA IRURETAGOIENA

Japonian auto (pribatu) bat izateko aparkaleku (pribatu) bat izatea derrigorrezkoa da. Neurria polemikoa iruditu dakiguke, hemengo araudiak (hemengo balore sistemak) autoaren gordailua publikoa den espazioak hartzea onartzen duelako. Hau da: arazoa publikotasunaren erantzunkizuntzat jotzen da autoaren presentzia geldia kalearen parte dela onartuz. Lurralde espazio handia behar du autoak, geldirik eta mugimenduan, eta zerbitzu publikotzat jotzen dugu. Horrela izatea asumitu dugu eta ohitu gara, eskubide bat izatera iritsi arte. Japoniar neurriak jauzi sozial bat ekar lezakeela iruditu dakiguke (dirua duenak baino ez du izango autoa), baina aldi berean bestelako egoera batzuk posible egingo ditu: auto konpartitua garraio eredu bezala txertatzea eta garraio sistema elaboratuago baten beharra gizarteratzea.

Ohiturak ohitura, aparkalekuak gure ohe azpian gordetzen dugu, etxeko sotoan. Hau da, etxeak sotoa izan behar du, ohiturari jarraiki. Balear irletako etxebizitza publikoko administrazioak aparkalekuen soto eraikuntzaren kostua kalkulatu du: eraikuntza kostu guztiaren %40a hartzen du. Administrazio honen apustua izan da sotoko aparkalekuen dirua etxearen kalitatea hobetzera bideratzea. Nolabait ulertzen da etxebizitzaren kalitatea oinarritzko eskubide bat dela eta auto pribatu bat izatea, ordea, ez.

Badago telesail saritu bat, *The Architect* izenekoa, etorkizuneko hirien gaineko eztabaida sotoko aparkalekuetan oinarritzen duena bere trama. Telesailak eraiki ditugun aparkaleku espazio erraldoiak erabilerarik gabe irudikatzen ditu, etxebizitza erabilera egokituz. Fikziotik gertu eta autoen espazio handiaren gatazkaren jakitun, badira arkitekto batzuk etxebizitzaren aparkalekuak diseinatzeko dituztenak egunen batean bizigarriak egiteko, aparkalekuen solairua erdisotora eramanez, errealtatezko etxeek fikzioaren delirioa hobe dezaten. ●

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Lehentasunak, enkantean

Kontinente zaharrak gerra komertziala plantatu dio Txinari, auto elektrikoek merkatu europarra porrot historiko eta irrigarri izatetik gertu dagoelako. Txinatarren errua omen, kotxe elektriko europarrak bi aldiz garestiago izatea haienekin alderatuta. Min egiten dietena da hemengo jendea, *KM.0*-ko kotxeak erosi beharrean –ez direla erabat bertakoak ere, e, pieza ugari Txinan egiten baitira–, Txinakoak ari dela eskatzen. Kalitate aldetik, inork ez du zalantzarik egiten alde handirik dagoenik, baina bertakoa erosteko... *Bertakoa*, hain dago modan, Europak ere horixe esaten digula, bertakoaren alde egiteko.

Txinak tranpa egiten omen du. Gehiegizko laguntzak ematen ei dizkie haien enpresei, munduan beste inork baino merkeago saldu ahal ditzaten haien kotxe elektriko berritzaileak. Eta hori da tranpa. “Publikoaren eta pribatuaren arteko kolaborazioa”, horrek bero-bero eta tentel ipintzen ditu, bada, hemengo agintariak. Baina atzerrian hori egitea tranpa da.

Ez naiz sartuko esatera gehiegizkoa den ala ez, baina ez dago hemerrotekan atzera asko egin beharrik ohartzeko Alemaniak orain dela hilabete gutxira arte horixe bera egiten zuela. Eta hori ez zen tranpa. Hori zen estrategia. Alemaniako zenbait enpresek EBko estatukideek baino %40 merkeago saldu ahal zituen bere kotxe elektrikoak eta kito. Orain, ordea, Txinarena iruzurra da. Ez da izango, bada, Alemaniako auto-salmentak ia %70 jausi direla laguntzak kendu zirenetik...

Txinarena tranpa delako, muga-zergak ipini dizkie Europako Batzordeak auto elektriko txinatarrei. Zenbait kasutan %45erainokoak. Eta asko da hori, izugarri. Ondorio ekonomiko larria izango du herriarren poltsikoetan, prezio guztiek gora egingo dutelako, zer eta Europako ekonomia suspertzearen izenean. Alegia, prezio lehiakorra zuen auto elektrikoak erosi beharrean, bikoitza balio duena erosteko; elektrikoak erosi beharrean, jendeak dieselaren alde egiteko. Beste hitz batzuetan esan nahi baita klima larrialdiaren “erronkari” geroago eutsiko diola Europak, ekonomia berrartzen duenean.

Lehenbizi gauza inportanteak. Pausa eman trantsizio energetikoari, eta argi berdea ekonomia berrezartzeari. *Make Europe Great Again*.

Eta *Make Bilbao Great Again*. Iragarri berri digute Bilbo eta New York arteko hegazkin linea zuzena... eta ez, espresuki, Kirmen Uriberen nobela serioegi leitu duelako nonork uda honetan. Hotelak gustura, taxiak falta zaizkigu orain, hori diosku gaueroko teleberriak. Kotxeak, kotxeak eta kotxeak, New Yorkera beharrean, argi dago nora doan linea zuzena. ●





%84

dira DBHra pasatzean mugikorrik ez duten gazteak Zarauzko ikastolan, familiek hala adostuta

Datuek erakusten dute joera apurtzea lortzen ari direla etxe (eskola) ugaritan. 11-12 urterekin ia gazte guztiek mugikorra izatetik igaro gara adin horretan smartphonerik ez duten ikasleak gehiengo izatera hainbat ikastetxetan, guraso taldeen ekimenari esker.

Usurbilgo Udarregin %80ak ez du smartphonerik DBH1en, Donostiako Zurriolan %75ak baino gehiagok ez dauka, Ibarako Uzturpen %70ak, Orioko ikastolan %78ak, Berrobin %63ak, Donostiako Luberrin %62ak, Seguran %56ak, Bergarako eskola batean %75ak eta beste batean %57ak, Zumarragako La Sallen %22,79ak, Mutrikuko Goizeko Izarran %32ak eta herri bereko Samielan ez dago inor mugikorrik ez duenik DBHko lehenengo mailan.

“Udalatxeko gurutzea ezingo da berreraiki, gune babestua delako”

ARRASATEKO UDALA

Ezezagunek gurutzea kendu zuten Udalatx mendiko gailurretik. 1971. urtean jarri zen eta 250 kiloko pisua eta 10 metroko luzera zituen.

2024-10-16



“HANDI EGITEN GAITUZTEN TXIKITASUNAK IKUSARAZI NAHI DITUGU”

GURE ESKU

Bideo-maratoia antolatu dute azaroaren 16rako.

2024-10-17

“Beti gainerakoei jartzen diegu oxigeno maskara, eta denbora badago, norberari”

IRATXE ETXEBARRIA

Krisi egoeran idatzitako gogoetak eta lagungarri egin zaizkion tresnak jaso ditu 7.300 miligramo eszitalopram liburuan.

ARGIA.EUS (2024-10-18)



TEKNOLOGIA

Migratzailea gehiago gabetzen



DIANA FRANCO EGUREN

Bidaiazte eta migratzea ondo bereizten ditugu zoritzarrez. Migrazioen kasuan, prozesua ez da amaitzen helburu duten herrira heltzean, ezta beste herri batean bizitzeko baimena lortzean ere, euren bizitzetako urte anitz, hamarkadak, eman ditzakete leku baten benetako hasiera berri bat bizi dezaketela errealitate bilakatu arte. Horrelako erabakiak etsipenetik hartzen dira. Eta etsipen hori zelatatzen, beti dago negozio aukera ikusten duenik.

Sare barik, baliabide barik, arrotzak egiten zaizkizun kultura eta jokabide batzuk ulertu nahian, erabakiak hartzeko premiarekin bizitza jasanezin bat aldatzeko beharrari lotua, oso zaurgarria izan daiteke edozein pertsona. Eta zoritzarrez, bihozgabe asko dago munduan, zaurgarrienak euren espresio minimora gabetzeko prest beti.

Arazo handienak datoz jasotzen den informazioa egiaztatzeko denbora ez hartzetik. Gure arreta jaitsi egiten dugu informazioa eman diguna sare gertukoa izaten denean. Konfiantzazko sareetan sartzea izaten da desinformazioa, iruzurra eta manipulazioa zabaltzeko estrategia eraginkorrena. Gainera, gaur egun, harremana baliatzen duten patxadazko elkarrizketak komunikazio azkarragatik ordezkatu dira, eta digitalizazioarekin dinamika areagotu egin da: informazioa partekatzen dugu, baina ez dugu tarte askorik hartzen horren inguruan hitz egiteko eta elkarrekin pentsatzeko. Migrazio prozesuan, iruzurrak zabaltzen laguntzen duten dinamikak sortzen dira gertukoek egiaztatu gabeko informazioa zabaltzen dutenean. Adibide batzuk: bot bidez migrazio zita guztiak erreserbatuta zita bat lortzeko ordainketa handia eskatzen duen "adituaren" zerbitzua, Uber plataforman bidaia zelan bukatuko den bermatzen ez duten Coyoteen zerbitzuen eskaintza (migratzaileak legez kanpo herri batera sartzen dituzten garraiolariak), dirua aurreratzea eskatzen duten alokairu iruzurtsuen publikazioak etxeak salerostera bideraturiko plataformetan, lan eskaintza faltsuak... Migratzaileentzako meategiz beteta dagoen espazioa da Internet. ●

NAZIOARTEA



Erro kolonialen itzal luzea erakunde publikoetan

AXIER LOPEZ

Aurtengo Ekonomiako Nobel Saria AEBetako Massachusettseko Teknologia Institutuko Daron Acemoglu eta Simon Johnson eta Chicagoko Unibertsitateko James Robinsoni eman diete. Erakunde publikoen kalitateak oparotasun ekonomikoan duen eraginaren kausazko frogak aurkezteagatik irabazi dute saria.

Hiru akademikoen lanean aztertu dute hainbat estatutako erakunde publikoek izan duten garapena, eta haien ondorio argienetako bat honako hau izan da: egungo oparotasun ekonomikoaren maila XIV. mendean kolonialismo europarraren hasieran izandako bizi-baldintzak lotuta dagoela. Beren hipotesiaren arabera, urrunetik heldutako kolonoentzat lurraldea zenbat eta aberatsago eta bizitzeko desgokiagoa izan, orduan eta interes handiagoa zuten potentzia kolonialek hango aberastasunak modu basatian lapurtzeko eta arpilatzeke, eta, horretarako, demokratikotzat har genitzakeen sistema edo neurri oro baztertzeko zuten erakundeak inposatu zituzten. Hau da, erakundeak eraiki zituzten han bizi ziren pertsonak kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, kalitate eskaseko erakundeak sortu ziren garai kolonialean, eta independentzia politikoa lortu zutenean ere eredu horrek indarrean jarraitu zuen, kolonia ohi horietan

gaur egungo orohar dagoen egoera ekonomiko txarraren aurrekari. Horren guztiaren arrazoia da – eta hori da nobel saridunek jorratu duten beste esparru bat – erakunde publikoek beren iraunkortasuna bermatzeko baldintzak ziklikoki sortzen dituztela.

Aldiz, azpimarratu dutenez, leku bizigarrienen eta gutxien garatutakoetan, ez zituzten baliabideak masiboki lapurtu, finkatu egin ziren eta aberastasuna sortzen saiatu ziren. Hala, han bizitzen geratu zirenen mesedera egokitutako erakunde demokratikoagoak ezarri zituzten, berekoieriaz jakina.

Ikertzaileek datu historikoei erreparatu diete. Adibidez, Europako potentzia kolonialen "inbertsio handi bat" izan zela ondorioztatu dute XIV. mende hasieran urbanizatuena eta dentsitate handienekoak ziren tokietan, eta horiek 1995. urtean pobreenak bihurtu ziren.

Erakundeen sustrai kolonialak aztertzea egungo mundu asimetrikoaren kausak eta ondorioak argitzeko baliagarria da. Kolonialismoak ez du formalki indarrean jarraitzen, baina bai haren funtsa: gutxiengoaren interesen mesederako garapen ekonomiko, politiko eta kulturala, gehiengo bizi-baldintza okerragoetara kondentzen jarraitzen duena, jatorria eta larruazalaren kolorearen arabera. ●

"Alarma egon badago, ez dugu guk sortu"

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Arabako zahar egoitzen egoera lehen planora pasa da berriz ere azken asteetan. Zaintza Araba elkarteak Gasteizko Arabarren eta Lau-dioko San Roque erresidentzietako egoiliarrei ematen zaien tratua salatu dute, hainbat senideren testigantzak jaso ondoren. Langileen lan-baldintza ere salatu ditu elkarteak. Ramiro González diputatu nagusiak eta Gorka Urtaran Gizarte Politiketako diputatuak elkartearen aurka egin dute, alarma piztea eta langileen aurka egitea leporatuta, besteak beste. Zaintza Arabako kide Txaro Marquínez Idiáquezekin hitz egin du ARGIAk.

Azken asteetan hainbat aldiz salatu duzue Arabako bi zaharren egoitzetan agureek jasaten duten tratua, eta administrazioaren jarrera. Zer gertatu da Gasteizko Arabarren erresidentzian?

Senide bat harremanetan jarri zen gurekin, oso gaizki zegoen bere amari ematen ari ziren tratuatik, ordurako erresidentzian kexak aurkeztuak zituen. Ertzaintzara ere joana zen, gutun anonimo bat jaso zuelako, ustez langile batena. Langileetako batzuen profesionaltasun eza edo agureekiko mespretxuzko tratua salatzen zuen gutunak, eta horrela zioen amaieran: "Zaindu asko zuen senideak eta adi egon". Ertzaintzan esan zioten oso larria zela gutunean salatzen dena, langile batzuen izen-abizenak emanda, tratu txarrak direla. Emakumeak bigarren anonimo bat jaso du ondoren, eta berriz ere jo du Ertzaintzara [ARGIAk erresidentzia horretako langile ohi batekin hitz egin du, eta nahiago izan badu ere ez eman el-karrizketarik, gutun anonimoak salatzen dituen tratu eta komentario desagokiak berretsi ditu]. Senide gehiagoren testigantzak ere jaso genituen ondoren, salaketa bidali genion prentsari, eta Aldundia urduri jarri zen.

Zer egin zuen Aldundiak?

EAJko bozeramaile batek "alarma soziala" sortzea leporatu zigun; ez, alarma egon badago, ez dugu guk sortu. Aldundiak bilera egin zuen senideetako batzuekin, eta agindu zuen inspekzio berezi bat egingo zuela. Zerbait egitearen sentsa-



ARGIA CC-BY-SA

zioa eman nahi izan dute, baina momentuz guk dakigula egoera ez da aldatu.

Jabetza publikoko (Aldundia) baina kudeaketa pribatuko (IMQ eta Mondragon korporazioa) erresidentzia da Arabarren, berria, eta bere ereduari lehena Araban. Diputatu nagusiak "abangoardia" zela esan zuen 2023an inauguratzean, eta eredu hedatzeko asmoa iragarri. Zuek zer iritzi duzue?

Kontzertatua esaten diote, baina azken finen pribatua da. Aldundiari min handia egin dio Arabarren erresidentziaren egoera salatzeak, harribitxi gisa saldu zuelako. Guk argi dugu zaintzak publikoa izan behar duela, administrazioak, ordea, negozio bilakatu du. Publikoa izan behar du bai erresidentzietan, bai etxeko zerbitzuetan. Esaten dute ez dela posible, baina Iruñean ikusi dugu nola publikatu duen gobernu berriak etxeko laguntza.

Laudioko San Roque erresidentziaren egoera ere kritikatu duzue.

Abuztuan emakume bat etorri zitzaigun, gizona du erresidentzian, hainbat patologia ditu, hiru minbizi, min izugarria... Antza gizonaren jarrera langileekiko ez zen ona, eta Aldundiak espediente irekiera baten berri eman zion, bi isunekin, 200 eta 600 euro-

koak, auto bat bailitza. Emakumea espezialistarengana joan zen gizonarekin, eta hark ikusi zuen erresidentzian ez ziotela ematen zegokion tratamendua. Horregatik zituen min izugarriak, eta horregatik zuen portaera hori. Espezialistak erresidentziako medikuarekin hitz egin zuen, tratamendua aldatu zuten, eta ordutik gizonak ez du inolako arazorik langileekin.

Emazteak erreklamazioa aurkeztu zuen uztailean erresidentzian, zuzendariak hartu zion baina ez zion sarrera-erregistroa eman. Guk esan genion berriaz ere aurkezteko, iraila zen, orduan bai eman zioten sarrera-erregistroa, eta astebetera Urtaranek deitu zion telefonoz. Esan zion alegazioa ez zuela epean aurkeztu, ondorioz legalki ezin ziola isuna kendu, baina agian 200 euroko beherapena egin diezaioketela.

Iragan astean salaketa berriak egin dituzue erresidentzia berberaren inguruan.

Emakumeak esan zigun kexak azaldu nahi zizkiguten senide gehiago zeudela, eta bertara joan ginen. Kontatu ziguten, besteak beste, nola dituzten agureak pixoiha-lak bistan horrela errazago aldatzen dituztela argudiatuta, edo ibiltzeko laguntza behar dutenek egun osoa ematen dutela gurgildun aulkitik altxatu gabe. ●

IRANGO PROGRAMA NUKLEARRA ERASO? ADITUEK DIOTE EZETZ, DENBORAREN ORRATZAK BAIETZ

Tel Avivetik Irango programa nuklearra erasotzea hipotesia baino gerta litekeen zerbait dela esateko, atzera begiratu du hedabide ugari: 1981ean Iraken eta 2007an Sirian, ehiza-hegazkin israeldarrek errektore bana birrindu zuten. Baina aurrekari horiek ez dute zer ikusirik Irango egungo egoerarekin. Begira zer kontatu diguten arma nuklearretan adituek *Bulletin of the Atomic Scientists* aldizkari prestigiotsuan.

 URKO APAOLAZA AVILA

Irailak sei ditu, gau erdia. F-15 eta F-16 ehiza-hegazkinen eskoadroia ziztuan doa Siriako sortaldeko desertuan barrera helburuaren bila. Zerutik ikusita ahuntzen ukuilu handi zarpail bat besterik ematen ez duen eraikina begiztatu orduko, 227 kilogramo zamadun aire-lur misilak askatu dituzte klak batekin: hiru, bi, bat... Zartakoa itzela izan da eta helburua txiki-txiki eginda geratu da. Hildakoak zenbat diren? Berdin du, aginte-postuan txaloka ospatu dute. Ze arraio, egunero ez duzu errektore nuklear bat bonbardatzen.

2007an Siriako Dayr az-Zawr eskualdean izandako erasoak ez zuten inork aldarrikatu eta hedabideek aleka jaso zuten informazioa. *The Sunday Times* izan zen gertaturikoa kontatzen aurrenekoa. Honen arabera, aurretik Israelgo Armadako unitateak desertuko instalazio horretan infiltratu ziren, eta, hondar zein ur mostrak analizatuta, ikusi zuten Ipar Koreatik zetozela. Bazeukaten froga definitiboa AEBen baimena lortzeko operazio hartarako.

Egunkari britainiarraren esanetan Ipar Koreatik eramandako material nuklearren ezkutaleku bat zen hura. Gero, beste medio batzuek baieztatu zuten Baxar al-Assaden erregimena errektore bat eraikitzen ari zela bertan. Hurrengo urtean, Ronen Bergman ikerlari hebrearrak –zeinak Israelgo inteligentzia zerbitzuetara sarbide zuzena duen– *The Secret War with Iran* (Gerra sekretua Iranekin) liburuan jaso zuenez, errektorearen inguruko informazioa Ali-Reza Asgari Irango militarrengandik lortu zuen Tel Avivetik. Asgari 2006an desagertu zen, eta iturri batzuen arabera Mossadek eta CIAk bahitu eta kalitu zuten. 2010ean gorpu agertu zen Israelgo ziega batean, ofizialki “bere buruaz beste” eginda.

Baina duela gutxi arte Dayr az-Zawrko erasoari buruz espekulatu besterik ezin zen egin, Israelgo Gobernuak zentsura mediatiko estua ezarri zuelako urte luzez. Azkenean, hamaika urteren ondotik, 2018an komunikatu batez onartu zuen ustezko errektore nuklearra suntsitu zuela “Israelentzat mehatxu larria suposatzen zuelako”.

Halako eraso *prebentiboak* bazuen aurrekari bat. 1981ean, Zaramak Euskal Herrian *Biildur naiz!* abesten zuen bitartean, 40 megawatteko Osirak izeneko errektorea leherrarazi zuen Israelek ezustean, Iraken, Bagdadetik 18 kilometrora. Ordukoan ere ehiza-hegazkinek exekutatu zuten plana, ordukoan ere erregai depo-

situ gehigarriak erabili zituzten Arabiar penintsulako desertu zabalak hegan gurutatzeko. Eta Saddam Hussein arma atomikoa lortzeko zorian omen zela izan zen aitzakia, ordukoan ere.


Menajem Beguin garai hartako Israelgo Lehen ministroaren esanetan, Iraken nuklearizazioa hamar urtez atzeratzea lortu zuten. Egiazki kontrakoa izan zen. “Lortu zutena izan zen arrisku handiago bat sortzea”, adierazi zion Husseinentzat lan egin zuen irakiar zientzialari batek CNN telebista kateari 2003an: “Bonbardaketaren ostean 7.000 zientzialari jarri ginen horretara, 10.000 milioi dolarreko inbertsioa zuen programa sekretu baten barruan”.

EGITEA PENTSATZEN ARI DIRA?

Gaza eta Libanoko sarraskien testuinguruan, Iranek urriaren hasieran Israelen kontra dozenaka misil jaurti ostean, honen erantzunaren zain daude orain. Saihetsezina da gurpiltxoari atzerantz soka eman eta, lehenago edo beranduago, gauza bera egingo dutela pentsatzea. Irango programa nuklearra beti egon da Tel Aviven jomugan –2011ko krisi diplomatikoan erasotzeko puntuan izan zen–, eta Israelgo eskuindar politikari askorentzat ezin du “aukera historikoa” galdu: “Ez bada orain, noiz?” esan du bere seneetik irtenda Naftali Bennet lehen ministro ohi ultrak, denboraren orratzak gelditu nahi balitu bezala.



ISRAELGO ARMADA



DAYR AZ-ZAWR Siriako desertuan Baxar al-Assaden erregimena eraikitzen ari zen erreaktore nuklearra bonbardatu eta txikitu zuten hegazkin israeldarrek 2007an.

Baina konparagarriak al dira 1980ko hamarkadako Irak, duela hogeitau urteko Siria, edo gaur egungo Iran? "Egoera oso desberdina da", azaldu dio James Acton arma nuklearretan adituak *Bulletin of the Atomic Scientists* zientzialari atomikoen aldizkariari. Irakurleak gogoratuko du *-Net Hurbil* sailean sarritan aipatu izan delako- zientzialari talde horrek neurtzen duela *Doomsday Clock* edo "Apokalipsiaren Erlojua" famatuaren bidez munduak hondamendira iristeko dituen orenak. Tik-tak, tik-tak. Oraintxe bertan 90 segundo baino ez zaizkigu geratzen gizakioi finitzeko.

Acton, Carnegie Nazioarteko Bakearen Aldeko Funtseko *think tank*-eko kide da, eta aldizkari horretarako elkarriketatu dute. Bere esanetan Iraken

zein Sirian erreaktore bakarrak suntsitu zituzten israeldarrek, baina horrek ez du zerikusirik Irango programa nuklearrarekin.

Urania oraingoz %60an aberasten duten Irango Fordow eta Natanzeko planta nuklearrak mendien azpian go-torturik daude, gutxienez hiru solairutara, eta Israelek horiek suntsitzeko beharrezkoa du AEBen laguntza, bunkerren kontrako 12 tonako bonba bereziak. Gainera, Actonen esanetan baliteke sakonera handiagoan lurperatutako ezkutuko planta gehiago egotea.

Eta bada beste eragozpen bat: "Iran gaur egun zentrifugagailu txikietan oinarritzen da, azkar sortu eta ipini daitezkeenak, edozein tokitan. Israelek Fordow eta Natanzeko plantak suntsituko



balitu ere -eta ez dut uste horretarako gai denik-, ia seguru Iranek zentrifugagailu azpiegiturak berregingo lituzke. Seguruenik jadanik baditu zentrifugagailu klandestinoak. Ez dakigu. Baina baliteke hainbat tokitan eraikitzea halakoak, nabe industrial normaletan, denon bistan".

Adituaren ustetan, ameskeria hutsa da israeldarrek pentsatzea "beti jakingo dutela non dagoen dena eta beti suntsitu ahal izango dutela dena".

"Baina horrelako zerbaitetan pentsatzen ari dira?", galdetu dio *Bulletin*-eko kazetariak. Izerdi hotz tanta batek kopetan behera irrist egingo dizu akaso, erantzuna leitzean: "[Benjamin] Netanyahu publikoki adierazi izan du aukera hori. Harrituko nintzateke oraintxe bertan aztertzen ari ez balira. Aurrera jarraitu eta hori egingo luketen? Israel-darrek badakite ondoren Iranek eraso-ko dituela orain arte ikusitakoa baino modu zabalagoan, eta AEBen laguntza beharko dutela defenditzeko. (...) Beraz, uste dut probabilitatea %50 baino baxuagoa dela, baina %10 baino altuagoa. Lasaitzen nau horrek".

Lasaitu? Hamarretik bateko erruletan ari dira jokatzeko, mundua kasino makabro bihurtuta. Tik-tak, tik-tak. ●




ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Yun Ping

ALDIRO ETXERA ITZULI



INOR EZ DA GAUZA BAKAR BAT, EZTA GAUZA OSO ITXI BAT ERE



Uda osoan ikusgai egon dira Yun Ping artistaren argazkiak Donostiako Cibrian galerian. Identitate-prozesuak dituzte langai, generoaren eta arrazializazioaren bidegurutzetan. Irailaren 12an, erakusketaren aktibazio eta itxiera gisa, Yun Pingek performance publiko bat egin zuen, eta biharamunean galerian bertan hartu gintuen, bere lanaz lasai hitz egiteko.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Segunda versión [Bigarren bertsioa] talde-erakusketan gaude. Bertan *huí jiā* sortako lan batzuk dauzkazu erakusgai. Nondik abiatu zen erakusketa hau?

Havi [weecolors] eta Aimar [Arriola] komisarioek idatzi zidaten, erakusketa bat egin nahi zutelako euskal artistekin. Nik Havi ezagutzen nuen Madrilgo arte-mundutik, baina Aimar ez. Erakusketaren titulua bukaeran aukeratu zuten, selekzioa eginda zegoela, eta bueltatzeari eta prozesuei buruz hitz egiten du. Nire lanaren kasuan badu zentzua aurkezten diren lanengatik [*huí jiā*-k etxera bueltatu esan nahi du] eta baita ere sentitzen dudalako nire pertsonaren eta proiektuaren bertsio berri bat hasten ari dela.

Oso berezia izan da.

Hau izan duzu lehen erakusketa Euskal Herrian. Zer moduz?

Oso pozik nago. Proiektua Eibarren hasi zen, hemengo lagunekin, eta oso-osoa polita izan da. Jendeari asko gustatu zaio eta maitasun handia jaso dut.

Erakusketa honetan zenbait argazki aukeratu dira, baina *huí jiā* seriea zabalagoa da.

Proiektua 2018 inguruan hasi zen, eta ez zen proiektu bezala hasi, gero hartu du forma. Hasieran autoerretatuak egiten nituen nire etxean; ez zen ezer. Edo,

hobeto esanda, bazen zerbait, baina ez zen proiektu bat. Gero, denborarekin, artxibo-lanean hasi nintzen eta hor garatu zen diskurtsoa, bakarrik. *Huí jiā*-k etxera bueltatu esan nahi du, txineraz. *Huí*-k esan nahi du denbora, biribila, buelta ematea eta itzultzea, eta *jiā*-k etxea eta familia. Proiektuak polisemia horrekin jolasten du, eta nire identitate-prozesuak dokumentatzen ditu, baina, baita ere, familiari buruz hitz egiten du, sortzen duzun familiari, adopzioari eta arrazializazioari buruz. Azken batean nire bidaia pertsonala dokumentatzen du, alderdi askotan. Adinari buruz ere hitz egiten du: 20 urterekin hasi nuen proiektua, eta orain 26 dauzkat. Eboluzio hori ere ikusten da.



Yun Ping

HUBEI (TXINA), 1998



Eibarren hazi zen, eta gaur egun Madrilen bizi da. Ikus-entzunezko ikasketak egin zituen ESCIVIn (Andoain), eta argazkilaritzakoak Madrilen, Artediez eskolan. 2023an, *huí jiā* bakarkako erakusketa aurkeztu zuen Madrilen eta Bartzelonan. 2024an talde-erakusketa batzuetan ere aritu da, besteak beste Donostian eta Lleidan.

Eibarren egin zenituen serieko lehen argazkiak, baina proiektu gisa Madrilen mamitu da; duela sei urte bizi zara hiri horretan. Zerikusia izan du proiektua garatzeak han aurkitu duzun komunitatearekin?

Interesgarria da, proiektuak horri buruz ere hitz egiten baitu. Nire identitate-prozesua hasi zen pertsona arrazializatua izatearen kontzientzia hartu nuenean, eta hori Madrilera joan baino lehen izan zen, 2018 inguruan. Bilbo-ko kolektibo antiarrazista bat ezagutu nuen, eta, lehenengo, emakume arrazializatua izatearen kontzientzia izan nuen. Eibarren izan zen lehen hazia.

Gero, Madrilen, etxetik kanpo ego- teak eta familia urrun edukitzeak, az- kenean, haritik tira eginarazten ditu eta Madrilen bertan trantsizio-pro- zesua hasi nuen gutxika-gutxika. Bizi izan naizen etxe bakoitzak posibilitate bat ireki du, eta eboluzio hori ikus- ten da argazkietan [etxeetan eginda daude argazki guztiak, Euskal Herrian zein Madrilen bizileku izan dituenetan]. Esate baterako, erakusketako ar- gazkietako bat nire Madrilgo bigarren etxean egin nuen, eta hor esango nuke jada nire trantsizioa presente dagoela. Esango nuke lehenengo kontzientzia izan nuela mutikoa nintzela, eta gero ohartu nintzela mutiko txinatarra nin- tzela. Etxe bakoitzak barrurago begi- ratzera behartu nau, nolabait ere.

Erakusketan, batez ere, autoerretatuak daude, baina seriea ez da soilik halakoez osatzen, ezta?

Serieko beste argazkiak erretratuak dira, eta nire familia hauta- tua agertzen da. He- mengo lagunak, nire arreba, nire gurasoak, gero Madrilen ezagutu dudana jendea, eta erre- tratu horietako bakoitzak, nire ustez, aspektu bati buruz hitz egiten du. Azkenean, erretratuak izanik ere autoerretatuak dira. Adi- bidez, badago erretratu bat nire la- gun batena eta bere semearena. Ma- ria deitzen da laguna, semea Ryu, eta erretratu hori izan zen nire lehenengo hurbilketa kultura asiarrera. Edo, adi- bidez, Madrilera berez bikotekideare- kin joan nintzen –gero bikotea apur- tu zen–, eta bere argazki asko daude

seriean. Pentsatzen dut beharbada nire bikotekide ohiaren bitartez mas- kulinitatea ikasi nuela. Nire ustez, ni bezain inportanteak dira proiektuan dauden pertsonak. Bakoitzak aspektu bat erakusten du.

Adopzioaren gaia ere landu duzu argazkietan. Txinan jaio zinen, eta Eibarren hazi, adopzioaren bidez. Esan izan duzu adopzio-sistemak, gaur egun planteatuta dagoen eran, egokitze-prozesu bat dakarrela, baina ezabaketa-prozesu bat ere. Halaber, 20 urte ingururekin hartu zenuen pertsona arrazializatua izatearen kontzientzia, lehenik emakume txinatar gisa eta, trantsizioaren ondoren, gizon txinatar gisa. Nola oroitzen dituzu haurtzaroa eta gaztaroa?


Ufa. Interesgarria da, ez didate inoiz hori galdetu testuinguru honetan. As- pektu horretan, gaztaroa eta haurtza- roa Eibarren... Bada, oso konplexua. Nire kasuan hainbeste gauza elkar- tzen dira. Uste dut oso konfusoa izan zela. Prozesu oso bakartiak dira, ez duzu inorekin konpartitzeko aukera- rik izaten. Azken finean, zure barruan dago eta bakardadean bizi duzu. In- guruko jendeak ez dauka esperientzia bera, ezta tresnak ere hori lantzeko. Nik neuk azaltzeko hitzik ere ez du- dala eduki esango nuke. Nire kasuan, urte askotako prozesua eta lan per- sonalaren emaitza izan da.

Genero-trantsizioa aipatu dugu: badu lekua argazkietan.

Argazkilaritza nire ondoan egon da prozesu guztian, eta polita da. Azken batean, argazki hauek gaur egungo pertsona egin dute. Nik ikusten ditut argazki hauek eta oso haurra sentitzen naiz; errespetu asko sen- titzen dut. Niretzat oso po- lita da egin dudana bidaia argaz- kitan ikustea.

Erakusketa-espazioan performanceak egiten hasi zara azkenaldian (atzo bertan egin zenuen bat Donostian). Nola abiatu zen hau?

Nire lehenengo erakusketa Madri- len izan zen, eta han egin nuen lehen performancea. Erakusketa bera nire



beste etxe bat zela sentitu nuen, eta erretratuak egin nahi nituen, naturalki, beti egiten ditudalako. Gainera, uste dut performancea eta erakusketa oso konbinazio ona direla. Beraz, lagun batzuk gonbidatu nituen eta esan nien “goazen zeozer egitera. Dibertitzera”.

Gero Bartzelonan egin nuen beste erakusketa bat, bakarkakoa, eta hor jada performance publiko bat egin nuen. Oso naturalki etorri zitzaidan ideia. Esan dudana bezala, erakusketa bera nire etxera etortzeko gonbidapena da, eta nahi dut jendea, publikoa, bere etxean bezala sentitu dadin. Hori lortu nahi dut performanceekin.

Zer moduzko harrera izan du zure lanak?

Orain arte oso positiboa izan da dena. Erakusketetara etortzen den jende gehiena kuir munduaren inguruan dabilzan pertsonak dira. Baina argazkilaritzaren eta artearen munduan ere oso harrera ona izan dut. Oso eskuzabala izan da dena.

Argazki askotan biluzik zaude. Performancerako ere biluzik jarri zinen. Gorputz biluziak modu jakin batean erakutsi izan dira artean, eta ez da ohikoena izan gorputz genero-disidenteak eta arrazializatuak ikustea autoerrepresentazio gisa, eta ez fetitxizazio edo exotizazio moduan aurkeztuta. Hori oso potentea iruditu zitzaidan. Halako gogoetak buruan izan dituzu lanean ari zinela?

Bai, noski. Nire behar bat da, eta autoerrepresentazioari buruz hitz egiten du. Azken finean, nik ez dut nire gorputzaren antza duen gorputzik ikusi izan begirada exotizatzaile eta fetitxizatzaile gabe, eta nik azkenean nahi dudana da naizen hori erakutsi. Naturalizatu, beharbada.

Eta boterea hartu, azken batean. Gure gorputzak beti ikusi izan dira bestetasunetik, eta begirada horrekin hautsi nahi nuen. Nik hartzen dut boterea eta erabakitzen dut nola errepresentatzen dudana nire burua. Eta gero aspektu psikologikoa dago, terapeutikoa ere. Uste dut asko dagoela hortik.

Beste performance batean maskulinitate asiarrar landu zenuen zehazki.

Performace hori lagun batekin egin nuen; erakusketa aktibatze modu bat zen. Berak ere interes handia du gai honetan, eta lehenengo esperimientua izan zen. Gero nik gehiago garatu dut, baina orduan koreografia bat zen, bideoa ere bazegoen, nire lagun Juliok [Hu Chen] beste ekintza batzuk egiten zituen. Bestalde, performancea baino lehen elkarrizketa bat egin genuen maskulinitate asiarrari buruz.

Zeri buruz hitz egin zenuten?

Galdera ona. Ekarri genuen liburu bat autore asko aipatzen dituen, baina horietako bat aipatu genuen bereziki, Tseng Kwong Chi, autore txinatar-estatubatuarra, performancean nik bere rola hartu bainuen.

Batez ere emakume txinatar izatearen eta gizon txinatar izatearen arteko alde horri buruz hitz egin genuen. Batek besterako aldatetaz. Azken finean, nik esaten dudana da pertsona arrazializatuok ez dugula generoa bakarrik al-





datzen, trantsizioa egiteak arrazializazioari ere eragiten dio. Ez da gauza bera emakume txinatar bat izatea eta gizon txinatar bat izatea. Eta txinatarra esaten dut ni txinatarra naizelako, baina beste "arrazetan" ere hala da, ez da gauza bera emakumea edo gizona izatea. Arrazializazioan, generoak dena aldatzen du.

Zertan nabaritu duzu alde trantsizioaren ostean?

Batez ere sexualitatearen adierazpenean eta desiran. Begirada zuriaren arabera, gorputz txinatar femeninoak hipersexualizazioa jasaten du. Bestalde, gorputz txinatar maskulinoa desexualizatuta dago. Aldi

berean, gorputz txinatarrek orokorrean feminizatzeko-prozesuak zeharkatzen ditu. Horrenbestez, transmaskulinitateak bi ikuspuntuak aldarrikatzen dituela pentsatzen dut, aldaketa-prozesu hain zehatzetan hirugarren ikuspuntu berri bat sortzen dela pentsatzea gustatzen zait.

Ukaezina da gizarte honetan mutila izatea errazagoa dela. Esango nuke errespetu gehiago sentitzen dudala besteengandik. Oso nabaria da nire ustez kale-erasoekin. Espazio publikoa ziurtasun handiagoarekin bizi dut orain.

Artearen arloan, zein dira zure erreferenteak?

Asko. Tomoko Sawada, adibidez, artista japoniar bat da, eta badu proiektu bat fotomatoietan egiten duena. Argazkietan beti agertzen da bera, baina arropa eta ilea aldatzen ditu, adibidez, eta nire ustez oso interesgarria da identitateari buruz hitz egiten duelako. Argazkiak NANEkoak bezalakoak dira, eta nahiz eta bera agertzen den beti, aldi berean pertsona desberdinak erakusten ditu. Proiektu hori inspirazio handia da niretzat. Argazkilari klasikoagoak ere interesatzen zaizkit, Robert Mapplethorpe edo Peter Hujar, adibidez. Eta nire lagunak ere nire inspirazioa dira. Batzuk esatearren.

Erakusketaren muinera itzulita, zer da zuretzat etxera itzultzea?

Ba, nire ustez, etxera itzultzea da beti galdetzea zein naizen. Orri zuri bat bezala. Gustatzen zait etxera itzultzearen terminoa: azkenean, etxea zure barruan dago, ez dago kanpoan. Trantsizioak edo prozesuak egiten ditugunean, beti pentsatzen dugu kanpoan daudela, baina bai eta ez. Neurri batean zure kanpoan daude: lehen esan dizudan bezala, bestearengan ere bazaude, laguntzen zaituen pertsona horrengan, nolabait ere moldatzen baitzaitu, baina niretzat identitatea barruan

dago, eta etxera bueltatzea horrelako zerbait da: zuk zure etxea dekoratzen eta zaintzen duzun moduan, etxera bueltatzea da nire buruari galdetzea, une oro, nola eraiki nahi dudan nire etxea.

Eta etxera bueltatzearen terminoa gustatzen zait, bestalde, maila filosofiko edo espiritual batean aipatzen duelako nola eraikitzen naizen ni orain, nola egingo dudan oraingo honetan, baina batez ere beste ideia hori, nire barruan dagoela eta ez dela helmuga bat, iritsi behar duan puntu bat, nahiz eta hori pentsatzen den ia prozesu guztietan. Kapitalismoa, ezta? Badirudi zerbait aurkitu behar duzula kanpoan, eta igo, eta eskalatu, baina azkenean, gu garena geure barruan dago, ez kanpoan. Eta hala da gauza guztietan.

Zertan ari zara orain?

Orain erakusketak eta performanceak egiten nabil batez ere. Datorren hilean erakusketa bat daukat Huelvan eta Cibrían galeriarekin Parisera joango gara azoka batera, Paris Internationale. Horretaz aparte, Madrilgo argazki-estudio batean ari naiz, argazkiak egiten.

Pozik zaude?

Bai, oso. Bilbon ere erakutsi nahi nuke nire lana, Euskal Herrian oro har, baina bereziki Bilbon. Arreba han bizi da, eta askotan joaten naiz bere etxera, lagunak ditut...

Azkenaldian, idazten ere bazabiltza.

Instagramen argitaratu dituzu hainbat testu: gutunak eta bestelakoak.

Hilabete honetan asko idatzi dut eta argazkiak eta testua konbinatu nahi ditut. Gauzak probatzen nabil.

Argitalpen bat aipatu nahi nizun zehazki. Gogoeta hau egiten zenuen:

"Gaur sentitzen dut "eta" naizela / zeinak aldi berean / elkartzen "eta" bereizten dituen / gizona "eta" emakumea / txinatarra "eta" euskalduna / seme biologikoa "eta" seme adoptiboa / zisa "eta" transa / bien arteko / elkartze-puntua naiz / mugitu egiten da / alde batetik bestera / niaren / etengabeko bilaketa batean".

Azken finean, aukeratzen gabiltza beti: hemengo edo horkoa, baina dena gara. Ez gara gauza bakar bat. Nire kasuan pertsonalki, baina uste dut inor ez dela gauza bakar bat, ezta gauza oso itxia ere. Dena gara, eta mugitu egiten gara denborekin. Bizitza hori da, ezta? ●



mitxelena *Koop*
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Iritziak

Nazio izatearen ardura



KARMELO LANDA MENDIBE
HISTORIALARIA

Euskal Herria nazioa bada, jo dezagun aurrera, eta euskal nazio demokratikoaren egiturak eraiki, zabaldu eta indarrean jarri. Egin dezagun behingoz politika positiboa euskal nazioa oinarri hartuta. Eraiki dezagun behingoa euskal herritarren etxea, Euskal Herria.

Euskal Herria nazioa da. Hori entzuten dugu berrero ere gurean, hori esaten da, baina paradoxaz, alderdi abertzale instituzionalei emandako boto kopurua goraka doan garai hauetan, desnazionalizazio prozesua ere modu azeleratuan zabaltzen ari da bi estatuetatik gure etxe barrura. Euskara ikasi duen herritarren kopuruak ere gora egin duen garai berean, euskararen erabilera ahuldu, trabatu, galgatu eta atzeraka hasi eta guztiz galtzeko arriskuan dakusagu. Larrialdi egoeran daukagu euskal nazioa, hori da egia.

Zama astuneko bi estatu jarri zaizkigu gainean, bai, eta bakoitzak bere "nazio-tasuna" eta "hizkuntza unibertsala" indarrez eta modu eraginkorrean hedatu du Euskal Herriaren alde banatan. Espainiar edota frantziar izatera, sentitzera eta mintzatzea behartu gaituzte, eta gurean ez dira gutxi dagoeneko inposaketa hori gertaera naturalizat hartzen dutenak. Horretarako bitarteko ugari baitute bai Frantziak bai Espainiak.

Baina esan dezagun argi hau ere: etorkizuneko proiektu gisa bai Espainia bai Frantzia porrot egindako estatuak dira. Zergatik? Begira dezagun Frantzia: estatu mailako aliantza progresista deitua hauteskundeetan garaile izan arren,

**Itsasontzi lastatua da
Espainia deitua, eta
lasta edo zama guztia
istriborrera pilatzen
zaio, eskuin muturrera
beti. Nola ontziratuko
gara, bada, hor
euskaldunok? Ez gure
borondatez!**

makronismotik eskuin mutur lepenistarrantz doan gobernantza egiturak nagusitzen dira.

Begiratu Espainiara, egitura zurrunezko itsasontzia da Espainia betiereko hori: brankan du monarkia ustela, borboiak txandaka lemazain; eskuineko amulan militarrek, beste aldekoan epai-leak; enpresarien elitearen kasta zubian nagusi; txopan, berriz, txandakako gobernu beti otzana eta haren marinel, morroi eta txo laguntzaileak. Itsasontzi lastatua da Espainia deitua, eta lasta edo zama guztia istriborrera pilatzen zaio, eskuin muturrera beti. Nola ontziratuko gara, bada, hor euskaldunok? Ez gure borondatez!

Itsaso zabaletan nabigatzen beti izan dugun trebezia berreskuratu behar dugu. Baina itsasontzi propio egokian,

nazio propioaren porturako bandan abiatu eta eskifaia egokia osatuta. Ez onartu inola ere estatu bi horiek erabaki dezaten gure nazioaren egitura, gure historia, kultura, hizkuntza, jendarte antolaketa, gure norabidea eta etorkizuna.

Nazioa bagara, nazioa izatearen ardura gure eskuetan hartu behar dugu behingoz, ondorio guztiekin. Ez gara jarriko defentsiban, estatuen erasoan zaparradaren azpian euritakoak zabaldua. Ez.

Zer dugu gure alde? Euskal herritarren nortasuna, euskaldun izateko borondate zabal nagusia. Horri eman behar diogu bide. Euskal Herriaren historiari berreskuratu behar dugu hari baikorra. Gu, euskaldunok, ez gara inoiz inposatzaile izan, biktima gara, sarritan erabaki irmoz eta indarrez ere defendatu den biktima. Ez dugu ontzat emango gure ibilbide historikoaren bertsio arrotz eta maltzurrik. Ez dugu, beraz, gurea ez den zorrik kitatu behar, ez eta ondoriozko baldintza inposaturik onartu.

Euskal herritarrok ez gara Euskal Herrian "gutxiengo nazionala", estatuak eta enparauak horretan tematzten diren arren. Euskal herritarren borondatezko naziotasun demokratikoa euskal naziotasuna da. Aldiz, espainiar edota frantziar sentitzen direnak, horiek dira Euskal Herrian gutxiengo nazionalak. Ondorioz, euskal nazioaren antolaketa demokratikoak naziotasun euskalduna eta euskara hizkuntza unibertsala bermatu behar ditu. Nazioa izatearen ardura euskal nazioagintza demokratikoa garatzea eskatzen digu. ●

Ikasi eta jolastu



TERE MALDONADO
FILOSOFIA IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

Lagun batek azaldu dit zein garrantzitsua den jolasa ikaskuntzan. Jolastuz gauza asko ikas daitezkeela jakin badakit, ugaztunen dokumentalak ikusi besterik ez dago. Badaude jolas hezitzaileak eta jostailu didaktikoak (gerra-jostailuak eta jostailu sexistak barne, nahiz eta sarri jolas hezitzaileen kontrako gisa aurkezten diren, oker, zeren eta hezi, hezten baitute, oso makur iruditzen zaizgun norabidean bada ere). Jostailu sexualak ez aipatzearren.

Zalantzan ipiniko dut adiskideak azalpenak ematean jarritako enfasia, guztion abiapuntua balitz bezala ezin dugula ezer ikasi jolastean. Alderantziz delakoan nago. Agian duela hamarkada batzuk, Harri Aroan, hezkuntza era zorrotzean zertzen zenean, ulergarria zen jolasaren garrantzia defendatzeko pasio hori.

Gaur arraroa dena zera da, hezkuntza arautuan jolastea eta ondo pasatzea baino zerbait gehiago egin behar dela esaten duena topatzea (zinez, zaila da hori esaten duen aurrerakoirik topatzea). Horrekin esan nahi al dut eskolan txarto pasatu behar dutela umeek edo nerabeek? Ez, *Jainkosenarren*. Baina ikasleek txarto pasatzea saihestu beharrak ez du zertan esan nahi guztiok ahalik eta ondoen pasatzea izan behar dugu-

nik helburu *bakarra*. Ikastetxe atarietan gurasoen galdera gero eta gehiagotan da "ondo pasatu al duzu gaur, bihotza?", beste honen orde: "Asko ikasi al duzu, laztana?". Bai, bi gauzak batera posible dira. Enfasiaz ari naiz. Gregorio Luri filosofo eta pedagogoak dioen bezala, barkatu, baina ez, eskola ez da jolas-parke bat. Luri katolikoa eta kontserbadorea da; eta, Jainkosak aipatu berri baditut ere, ni atea eta ezkertiarra naiz.

Lagunaren grinaren kontra, egun, jolasak hezkuntzan duen garrantzia bainoago, azpimarratu behar da bizitzan zein beharrezkoa den aspertzea. Eta, ikasteaz ari garenez, ikasi behar dugula, halaber, ondo aspertzen. Ezin egon gaitzke uraren gaineko aparretan etengabe; besteak beste, gaudenean baloratu ahal izateko. Intsumisioa behar dugu, Iñigo Martinez Peñak dioen mandamentu hipermodernoaren kontra (*di-bertitu zaitez!*).

Jolastu edo *jolasa* terminoaren hainbat barne ñabardura daude. Kasurako: jolasa egoteko, derrigorrezkoa ote da entretenimendua? Matematikako ariketa jolasa izan al daiteke? Gogoratu "irabazi" eta "galdu" tartean sartzen badira, *jolastu* barik, *jokatu* behar dugula esan, bi gauzok desberdinak baitira euskaldunontzat (hizkuntza askotan

nahasten dira biak). Euskaltzaindiak emandako adibideei jarraiki, xakea edo bestelako mahai-jokoak ez dira mintzagai hezkuntzan jolasaren garrantziaz ari garenean. Ezta kirol gehienak ere. Jolasa "atsegin edota atsedean hartzeko jarduna da, olgeta, josteta, eta dirurik jokatzen ez den joko edo kirola" (hitz-jokoa salbuespena ote da?). Euskaltzaindiak gaineratu bezala, nola hartzen den arabera, jolasa dena joko bihur daiteke, bertsolaritza, kasu.

Ehunka web-orri daude jolasa edo/eta jokoa ikaskuntzan sartzearen onurak azaltzen dituztenak. Ez da soilik ondo pasatzea, esaten digute, neurozientziek erakutsi duten lez... hau eta bestea. Ai ene, bai! Bilatu zer dioten azken ikerketek burmuinerako aspertzearen onuraz (bateko berdinketa, kar, kar). Azken aurreko asmakeria "*edutainment*" da, ingelesezko *education* eta *entertainment* hitzen batura. Ahalik eta lehen ahaztu nahi nukeen webgune batean esaten da, pozaren pozez: "Belaunaldi berriek heziketa askoz errazagoa exijitzen dute ikaskuntzari laguntzeko eta, autore batzuek diotenez, sistema horietan entretenimendua tresna da eta hezkuntza, berri, ekosistema horren barruko eduki formal". Hitzez hitz, serio. Dibertitzen ez dena nahi ez duelako da. ●

XXI. mendeko euskal eskola zein? Publikoa



MIKEL BASABE
KORTABARRIA
IRAKASLEA

Corazonistas, Marianistas, Niño Jesús, CEU San Pablo-Virgen Niña, Carmelitas, Presentación de María, Vera Cruz, NClic, San Viator, Escolapias, Escolapios, Mercedarias, Nazareth, Inmaculada Concepción, Hogar San José, Egi-bide, Urkide (lehengo Ursulinas) eta San Prudencio. Gehi Eusko Ikastolen Batzako Olabide. Azkenik, Partaideko Armentia. Horiexek dira Gasteizko eskola pribatuak, guztiak kontzertatuak (hau da, diru publikorekin finantzatuak).

Gogoratu EAEko Hezkuntza Legeak zer dioen: "26. artikulua.- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa. 3.- Euskal hezkuntza-zerbitzu publikoaren prestazioa ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez gauzatuko da". Eta honako hau ere bai: "23. artikulua.- Itunpeko ikastetxe pribatuak. 2.- Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren barruan nahitaezko ikasketak ematen dituzten itunpeko ikastetxeak oso-osorik finantzatzeko dira, ikasketa horiei dagokienez".

Gasteizko ikastetxe pribatuak zerrendatu ditut, bertan dut bizilekua eta bertan naiz irakasle. Euskal Herriko bigarren hiria da populazioan, eta euskaraz izugarriko aurrerapausoa egin du ezagutzan, ingurune ez euskaldunetan dagoen arren. Gasteizek hezkuntza-sare pribatu erraldoia du: Eustaten azken datuen arabera,

Lehen Hezkuntzan sare publikoa nagusi den arren, 12 urterekin Gasteizko gazteen %55 sare pribatura doa DBH egitera, zeinean bostetik batek baizik ez duen D ereduan ikasiko. Publikora doazen artean, ostera, bostetik lauk egingo du DBH D ereduan.

Beraz, zehazki nondik helduta eutsi ahal zaio ikastetxe kontzertatuaren aldeko diskurtsoari eta praktikari? Ezkerretik, zelan? Euskalduntzetik, zelan? Zelan justifika daiteke "herri ekimeneko" ikastetxe bat (ala bi dira?) babesteko, beste dozena eta erdi ikastetxe, tartean zenbait euskarafobo eta erabat klasista ere, finantzatu behar ditugula, "oso-osorik finantzatu" ere?

Ukaezina eta eskertzekoa da ikastolek XX. mendearen garai ilunean egindako ekarpena. Eskertzekoa, hezkuntza publikoak aukerarik ematen ez zuen hartan, euskaraz ikasteko bidea eman zigutela. Eskerrik asko, beraz, ikastola haiei guztiei, bai mende amaieran publikatu zirenei, bai kontzertatu izaten jarraitu zutenei ere.

XXI. mendean, baina, sare kontzertatua ehuneko ehunean (gehi kuotak) finantzatzeko eta diskurtsoan nahiz praktikan akritikoki sustatzeko, ahuldu egiten ditu gizarte-kohesioa, laikotasuna eta euskararen biziberritzea. ●

Basoan barna



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Anariren *Piromania* kanta jarrita noa portu batetik barrena, kamioi txiki baten atzetik. "Denborak egin duen basoa, bere piztia, bere sasi, zureztat erantzten dena eta zurekin jantzi. Zuk hainbeste zaintzen duzuna, eder eta egia izan dadin... Baina zuk ere nola basoa adina sua maite duzun...". Kantak aipatzen du Galiziako emakume bat, bertako basoetan kandela lurrindunekin su txikiak pizten zituena han eta hemen. Volkswagen Golf gorria zuen, eta barruan aurkitu zuten *I amo Galicia* lema zeraman txiskeroa atxilotu zutenean. 22 hektarea pinu eta eukalipto erre zituen txinatar batzuen

dendan erositako kandlekin. Denda hura senarrak lan egiten zuen gasolindegitik hurbil zegoen. Kanta entzuten dudana baikoitzean burutara etortzen zait *Suro* pelikula, ordea. *Suro* pelikularen bukaera, hobeki esan. Protagonistak masia bakarti batean bizi dira, eta sua entzutean kalera ateratzen dira eta mangera prestatu. *Zer egingo dugu orain?* Galdetzen du senarrak. *Etxea defendatu*. Hori da emaztearen erantzuna. Bikotea hautsi duen etxea defendatzeko prest daudela bukatzen da filma. Izan ere, maite dugunak suntsiarazten gaitu aldi berean. Eta maiteago izan dadin suntsitzen dugu batzuetan. ●

Gure herrietan egingo dugu lan



BEÑAT IRASUEGI IBARRA
KOOPERATIBISTA

Lanak gure bizitzetara zentzua ematen dien ustea krisian dago, bai behintzat industrializazio berantiarrek hegemoniko egin zuen moduan. Lanaren etika protestante moduan definituenez lanaren izaera hori, burgesiak interes propioz garatutako munduan izateko modua (kapitalismoarentzat baliagarri), langile klaseak bere egina, baita euskal kooperatibismoaren pentsamenduak ere. Azken finean, soldatapeko lana da denbora luzez jendartean subjektu egin gaituena. Bai, ikuspegi horrek jende asko identitate hegemonikoetatik kanpo utzi du.

Lanaren zentzua krisian dago, prekarizazioa zabaltzen delako berriro, lanaren definizioa bera soldatapeko lanetik askatu eta konplexuagoa bihurtu delako, autoeraketa kolektiboan oinarritutako lanak betaurreko feminista, ekologista eta antirrazistak jantzi dituelako, krisi sistemikoak segurtasuna eta birtokiratzeari bezalako beharrak erdigunean jarri dituelako, neoliberalismoak egiten dugun lana baino aisia (kontsumoa) jainkotu delako.

Lana, bere zentzu
zabalenean,
komunitatean,
kolektiboan,
berdintasunez,
beharrezkoa dugu
bizitza bera posible
izan dadin

Langile identitatearen nostalgia ariketa erreakzionarioen putzuan sartzea ekidin, eta, krisi sistemikoak jendea us-tez lan seguruak diren etara daraman eskapismoa arazo gisa identifikatuta, pentsatu beharko dugu zer egin lanaren zentzuarekin. Zapaldu eta ikusezinak beti zentzu horretatik kanpo egon direnez, agian lehen pausoa izan daiteke haiei entzun eta subjektu moduan tokia egitea. Beste bide bat izan daiteke zen-

tzuaren aldagaietara ekartzea beti existitu den lan autoeratu eta kolektibizatua.

Lanaren definizioa eta etika berria behar dugu, beraz; aferra konplexua. Hasi gaituzten gure bizitza eta lurraldeetatik. Egin dezagun gure herrietan (ondo) lan eta bizitzeko asmoa gure ildo politiko eta material zentrala. Beldurtzen gaituen krisi ekosozialari eta Joseba Gabilondok ondo definitu duen apokalipsiari aurre egiteko bidea egin behar dugu, bizitzarako beharrezkoak diren lanei prestigio sozial eta materiala emanaz. Zaintza eta elikagai ekoizpena, adibidez. Hezkuntza gure herrietan bizitzeko behar material eta sozialen identifikazioarekin lotuta, eta lan proiektu kolektiboak sortuta. Horretarako gure herrietan badauden gaitasunak, baliabide komunak eta eza-gutzak saretu eta norabide honetan jarri beharko ditugu.

Lana, bere zentzu zabalenean, komunitatean, kolektiboan, berdintasunez, beharrezkoa dugu bizitza bera posible izan dadin. Horregatik, aurreratzen dizuet, etorkizunean gure herri eta auzoetan egingo dugu lan. ●

“

**Piztutako pospolo batek
gehiago argitzen du piztu gabeko
itsasargi batek baino.**

Miren Artetxe

Bada esaldi bat
pentsamendu bakoitzarentzat...

Badakizu?

Egin zaitez Jakinkide

Urtebetez doan.

Paperean edo digitalean
etxean jasoko duzu.



Jakin dabilen
pentsamendua

bardokak

2024

Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa

Irailaren 13tik urriaren 26ra



Finala

GARES

Urriak 26, larunbata. 17:30ean, Garesko
Zamariain Pilotalekuan
Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus



Mutilatuak



Baztanzopak



Hor gu!

Antolatzaileak:  **nafarroako bertsozale elkarte**



Ayuntamiento de **PUENTE LA REINA**
GARESko Udala

Laguntzailea:



ARGIA

TXORIEN MIGRAZIOA

Enigma eder baina mehatxatu hori...

Gibeleko mapak argi uzten digu hegazti migratzaileentzat pasabide interesgarri eta aberatsa dela Euskal Herria. 350 bat hegazti espezie zenbatzen ditugu negurako kanpora doazenen zein bertara datozenen eta migrazio-bidean atseden hartzeko pausagune dutenen artean. Bizi nahiak eta bizirauteko senak bultzatzen ditu urtean bi aldiz milaka eta milaka kilometro egitera. Fenomeno horri so jarri gara. Gizakion jarduerak eta klima aldaketak dakartzaten kalteak ere ezagutu ditugu, dakigunez, Europako txorien %25 desagertu delako azken 40 urteetan.

Hegazti migratzaileak behatzeko leku andana bada Euskal Herrian, tartean, Organbidexkako lepoa Iratin (ezker) eta Urdaibaiko padurak (eskuin).

LPO TXORIEN BABESERAKO LIGA



J. BERHOKOIRIGAIN



Eguna txoriei so pasa dezakeen oro kilikatzen duen galdera da ondokoa: nola demontre asma-tzen dute bidea urtero mundua-ren puntu bat utzi eta milaka kilometrotara duten helmuga berera heltzeko? Misterio handi bat da, ornitologoez noizbait argitu nahiko luketena, baina oraingoz erantzunik gabeko galdera izaten segitzen duena. Obserbazioei eta ikerketa zientifikoei esker agertu zaigu lurraren magnetismoari segi, gaez izarren kokapenaren arabera eta egunez paisaiaren arabera aitzina-tzen direla, eta orientatzerakoan bistak bezainbat garrantzia duela usaimenak. Baina, hala eta guztiz ere, zaila da sines-tea ainara bat beti itzuliko zaigula kabi berera edo ondokora. Zaila da ere si-nestea Eskoziatik Euskal Herrira arrano arrantzale txita batzuk ekarri, hemen hazi eta instintiboki migrazioari lotu di-rela, inork ezer azaldu gabe ohiko hel-muga duten Sahara hegoaldera arribatu eta hortik berriz Euskal Herrira itzuli di-rela. Urdaibai Bird Center-en dabilen ornitologo Edorta Unamunok digu 2013an Bizkaiko kostan abiatutako berreskuratze programaren berri eman. "Arrano arrantzale bakoitza egun ezberdinetan abiatu zen bakarrik, eta kuriosena da gehienek bide bera hartu zutela eta de-nak zirela inguru berera iritsi, nahiz eta leku horietarik inoiz igaro ez izan. Gauza bat da genetikoki daukazuna, baina ez dakit ze punturaino horrek ahal dizkien erakutsi arrano arrantzale horiei bidea eta helmuga".

Mundu mailako 10.000 txori espezie-tarik %19k migratzen du distantzia han-di batean eta munduaren bi muturretan egoten direnei dagokionez -35 graduz goragoko Ipar eta Hego latitudeetan direnentzat- %50ekoa da proportzioa. Oro har, negua iragaiteko iparretik he-goalderantz jaitsiko direnak dira gure-tzako ohikoenak. Hiru multzotan bana-tu ditzakegu: udaberria eta uda gurean pasaturik udazkenean hegoaldera mi-gratuko dutenak -Iberiar penintsularen muturrera, Afrika iparraldera ala Saha-raz hegoaldeko Afrikara-; iparreko in-guruak utzi eta negua gurean pasatzera etorriko direnak; eta iparretik hegoalde-rako bidean -Atlantiko ekialdeko bidea deiturikoa- indarrak hartzeko, gurean geldione labur bat egin eta aitzina se-gituko dutenak. Negurako mendietatik lautadara jaitsiko direnak ere baditugu, besteak beste, tuntun arrunta, urritik martxora egonen dena gure artean.

Kantauri itsasoaren eta Pirinioen ar-tean kokaturik, pasabide inportantea dute Euskal Herria txori migratzaileek. Bidaia dorpe horretatik bizirik aterat-zeko senak eramaten ditu gure gainetik pasatzera, mendebaldetik itsaso zabala eta ekialdetik mendikate arriskutsua ukanik. Gainera, Urdaibai Bizkaian, Salburua Araban, Txingudi Gipuzkoan, Pitillas Nafarroan edo Ansoteko bazte-rrak Lapurdin, atsedean hartu eta ongi jan ahal izateko gune biziki aberatsak dituzte hemen gaindi. Guztira, 350 bat txori migratzaile espezie zenbatzen dira gure inguruetan. Espezie goiztiarrenak

uztailean eta azkenak azaro erditsutan ikusgai ditugu. Milioika eta milioika dira pasatzen, eta ikusgarri ederra du zerua-ri begira egoteko aukera duenak. Gune batzuk ezagunak dira horrentzat: aipa-turiko hezeguneak edota lepoak, tar-tean, Irati gaineko Organbidexka, Sarako Lizarrieta eta Nafarroako Lindus. Ezin aipatu gabe utzi Bardeak, kasik basa-mortu den ingurugiro hori gogoko eta ezinbesteko dutelako hegazti anitzek. Organbidexkan pasatzen du denbora LPO Txorien Babeserako Ligan lanean dabilen Xabier Dindartek. Miru beltzei, zikoina zuriei zein beltzei eta zapelatz liztorjaleei "datorren urtera arte" erra-na die, eta egun hauetan miru gorriak, gabiraiak eta birigarroak ditu ikusgai. Laster usoek eta lertsunek dituzte ze-ru-gainak apainduko. Orotara hogeit bat harrapakari espezie dira Organbidex-katik pasatzen, beste txori ttipi bidaiari andana ere, baina ez dituzte zenbatzen, pasabide larrea izanik ttipiegi direlako kontaketa-aren momentuan.

Espezie bakoitzak bere erara migra-tzen du: goizago ala berantago, bakarrik ala taldean, gaez ala egunez, pausa ttipi erregularrak hartuz ala distantzia han-diak ukaldi bakarrean eginez, ehunka kilometro eginez ala milaka, itsasbaz-terretik ala mendialdeetatik, espezieka batek bai besteak ez... "Hegazti espezie bakoitza mundu bat da", Unamunoren hitzetan, baina gauza bat dute komu-nean: erabaki bakoitza bizitzeko se-nak ondorioztaturikoa dute. Demagun, Sahara zeharkatuko dutenak goizago

abiatuko dira, hain justu, basamortuko tenperatura beroenak saihesteko. Espezie bakoitzak du bere dieta propioa eta horren arabera sinkronizatzen dute bidaia. Sekulako bide arriskutsua izaten dutelako. Pentsa zer den mokoizabal zurientzat Herbehereetatik Senegalera hamar bat egunez egin beharreko bidaia. Ehunka ikusi izan dira aurten ere Urdaibain, gustura, energia hartzen ari. Harri-iraulariak ere ditugu neguan gure artean, Kanadaren iparraldeko Ternua irla utzi, Groenlandiatik eta Islandiatik pasa eta 5.000 kilometroren buruan gure kostaldean ditugunak. Gabai arreek ere dute urtean bi aldiz 12.000 kilometroko Txile-Artikoa bidea egiten -8.000 kilometro eginik euskal kostan pausatuko dira egun pare batez, indarrak hartu eta aitzina egin ahal izateko-. Lurra aurkitu arte ez dute gelditzerik, beraz, hil ala biziko erronka dute ozeanoa trabeskatzearena; mutur batetik abiatzeko erabakia hartu eta nekeari, goseari, deshidratazioari, harrapakariei, haize boladei eta txarrean, ekaitz bortitzei aurre egin beharrearena. Azken bat ai-

“Espezieak egunero desagertzen dira, baina ez gara joan behar Amazonia arte hori ikusteko, Euskal Herrian ere gertatzen ari da”

Edorta Unamuno, Urdaibai Bird Center-eko ornitologoa

patzekotan, har dezagun Ipar Txenada (Sterna Paradisaea) Antartikotik Artikora arteko bidea egiten duena, eta santza pixka bat ukanez gero, euskal kostatik itsas zabalean hegan ikus dezakeguna. Urtero 70.000 kilometroko joan-etorriarekin -edo bizian 2,4 milioi kilometrokoa-migrazio luzeena duen hegaztia da.

Beste gune arriskutsua dute Sahara basamortua, eta aukera baldin badu-

te, lehenago geldituko dira. Baina anitz doaz, eta berdin dio hamabost gramoko hegazti ttipia baldin bada. Grasa erreserbak egin eta badoaz ainarak, urretxindor arruntak eta bestelako hegazti andana. Anitz ez dira helmugara helduko. Ornitologoek ikerketek eta segipenei esker badakigu lehen aldian %80 dela hiltzen. Haatik, lehen migrazioa gaindituz gero, errazkiago egingen dituzte ondokoak. Mehatxuaren berri badakite, baina egin beharra dute, geldituz gero, gosez hilen lirakeelako. Elikaduraren izenean doaz, neguan hazi, fruitu, intsektu edota harrapakin nahikorik ez luketelako ugalketa guneetan. Hilabete hotzenak hango beroetan pasa eta itzuliko dira iparrera udaberrian, landareak berriz loratzen jarriko direnean. “Urte luzeetan eboluzionatu dute hegazti migrazioaileek, haien kumeak intsektu gehien dagoenean edukitzeko eta elikatzeke”, dio Aranzadiko Maite Laso ornitologoak. Hori bai, eguraldi kaskarrenetan gelditzen dira, arriskua saihesteko; baina gehiegi ez, helmugara ahal bezain laster arribatzeko.



Hegazti espezie bakoitza mundu bat da, eta bakoitzak ditu bere berezitasunak. Hala ere, guztiak dute arrazoi berarentzat migratzen: gosea saihesteko.

Bidean kausituriko oztopo naturalez gain, gizakiok eragindakoak ere dituzte, eta hor hasten da gaiari begiratzerakoan ezinbestekoa dugun antropozentris-moaren kritika. Europan ditugun txorien laurdena desagertu da azken urteetan.

%25 gutiago azken 40 urteetan

"Duela 50 urteetatik hona izugarria da ikustea nola jaisten ari den populazioa, batez ere hegazti arruntena. Euskal Herriko izendegian dauzkagu sorbeltz arrunta, enara arrunta, istingor arrunta... nik utziko nioke 'arrunta' izendatzeari, zeren ia utzi dute arrunta izateari leku askotan. Lehen oso arrunta zirenak gaur egun benetan gutxitzen ari dira, asko eta asko, kasu batzuetan %95etik gorakoa da desagertzen tasa. Pentsatzen dugu animaliak, hegaztiak, landareak desagertzen direla tropikoetan. Egune-ro desagertzen dira espezieak, baina ez gara Amazonia arte joan behar. Euskal Herrian ere badaude hainbat eta hainbat desagertu direnak", dio Unamunok.

Urbanizazioak estali ditu gunehaze andana -Donostia ala Bilbo hezegune aberatsak izan ziren, paduraz jositako eremu zabalak- eta nekazaritza zein arrantza industrialaren zabalpenak pobretu ditu berriki arte bioaniztasun aberatsa zuten eremuak. Zer erranik ez bidean kausitzen dituzten argi artifizial, linea elektriko, ehiztari, etxeko katu ala garraioei dagokionez. Denboran aitzinatu ahala, kalte berriak dakarzkiegu. Hor ditugu hala nola, eolikoak. Pozoiturik hildako hegaztien arazoa aipatzen du Dindartek: "Aurten sai zuriekin badugu arazoa, batzuk erori dira Pirinioetan eta ez dakigu zergatik, ez da heriotza naturala. Analisiak eginen ditugu baina biziki luze da". Pasabidean dituzten txerritegi alimaleetan diren arratoiaren kontrako pozoia ematen du adibidez: "Arratoi pozoitua berehala jan eta ez dute denek digeritzen. Pozoi horiek debekatzeko desmartzetan gara, baina beti dituzte produktu berriak merkaturatzen".

Laborantza industrialak dakarren intsektiziden zabalpenagatik eta monokulturagatik desagertu da hegaztien elikagaia, eta gosetea zabaldu da beraien artean. Finalki, zifrek argi uzten dute: txorien populazioaren %25 desagertu baldin bada, oihanetan %18 gutiago dira, hirietan %28 eta baserri munduan, haatik, %57 desagertu dira. Laborantzaren bilakaerak ondorioztatu habitaten aldaketa azpimarratzen du Dindartek: "Pentze naturalek dakarten lore dibe-

Zingira berdantza lusitaniarra, Euskal Herriko desagerturiko hegazti espeziea. Argazkian, 2004ko uztailaren 24an ikusitako azken alea litzatekeena Unamuno ornitologoaren arabera.



EDORZA UNAMUNO



WIKIMEDIA

Euskal itsasertzetik Ipar Txenada ikusteko suertea ukan dezakegu. Migrazio luzeena egiten duen hegaztia da, Artikoa eta Antartikoa artean urtero 70.000 kilometroko joan-etorria egiten dabil.

tsitatean baduzu intsektu dibertsitatea, eta horrek kate guziaz azkartzen du. Belar mota bakarra ereiten baduzu, ez diozu deus ekarriko ingurumenari, dibertsitatearentzat tirrit ez du balio". Paisaiari dagokionez, hesi naturalek bioaniztasun eta habitata aberatsa ekartzen dutela oroitarazten du: "Iruditzen zaigu baditugula arbola ederrak hemen, baina ditugunak gelditzen diren bakarrak dira, gaixoak! Normalki kalitatezko hesi batean badira arbola zaharrak, gazteak, patxaranak, elorri zuriak... ez da bakarririk hesi triste bat arbola handi batekin".

Klima aldaketa, lasterregi datorren aldaketa

Azken hamarkadetako beroketa globalak negu epelagoak eta udaberri goiztiarrak dakartza eta horrek hegaztien egonaldian eragina du, goizago etortzen direlako edo luzatzen dutelako egonaldia. Udaberriko etorrera 5-12 egunez aitzinatu dute azken 30 urteetan. Gizakion agendetan ez da gauza handia 5 eta 12 egun arteko epea, baina hegaztiei heriotza -eta espezieen desagertpena- ekar diezazkieke. Hain zuzen, ugaltze-eremurako etorrera ez badator bat intsektuen

"Urte luzeetan eboluzionatu dute, intsektu gehien dagoenean kumeak edukitzeko. Milaka urtez lortu dute sinkronizazioa, eta derrepente [klima] aldaketa dator"

Maite Laso, Aranzadiko ornitologoa

agerpenarekin edota haize-laster hotz bat agertuz gero, hiltze kopurua drastikoa izan daiteke. Are gehiago, azken 30 urteetan intsektuen %80 desagerturik denean, agroindustriarengatik. Jakina da ere muturreko egoeren areagotzea dakarrela klima aldaketak: zikloiak, idorteak, tornadoak... nekez iraun dezakete giro horretan hegaztiak. Sahara ere zabaltzen ari da arrazoi beragatik eta ondorio dramatiko eragin dezake: indar eskasagatik bidean hiltzea -aldaketa hori gabe, jadanik doi-doi lortzen dute zeharkaldia-.

Espezie batzuk, Saharaz gairako migrazioak egiten zituen zikoina beltza, adibidez, azken finean, hegoaldeko European gelditzen dira orain. Antzarak ere berriki arte gure paisaia pasatzen zuten negua, baina geroz eta gutiago ditugu, egokia zaielako Alemania, Belgika ala Herbeheretako negua. Gurean ikusten ditugu ere berriki arte ikusten ez genituenak, direla arrano-txikia, apo-hontza eta zikoinak. Leku aldaketa horien ondorioz nahiko elikagai izanen ote da guztientzat? Ez da argi, eta bada kezkatzekoa, gosete bat nahikoa delako espezia desagertzeko arriskuan



jartzeko. Ibilbidea aldatu dutenak, hala ere, gutxiengoan jarraitzen dute oraingoz.

Hain epe laburrean gertaturiko klima aldaketa denbora-lerroan kokatuz gero oharren gara horrek dakarrenaz: "Glaziazioetatik egon da migrazioa, milaka eta milaka urteetan egon da eta hegaztien garunetan eta gorputzetan oso-oso sartua dute. Orain, bat-batean horrelako aldaketak? 50 urte ez da ezer gure Historian", Unamunoren hitzetan. Ideia bera azpimarratzen du Lasok ere: "Hegazti migratzaileek urte luzeetan eboluzionatu dute intsektu gehien dagoen uanean kumeak edukitzeko eta elikatzeko. Eboluzioari begiratu behar zaio. Milaka urtez lortu dute sinkronizazioa eta derrepente hamar urtez aldaketa dator". Pentsa, oraindik ehunka eta ehunka hegazti datoz Bilbo aldera, mapa mentalean dituzten padura desagertu horien esperoan. Goizegi da klima aldaketaren eraginak ondorioztatzeko, baina ez du kentzen kezka iturri dutela ornitologo guziek.

GUNE BABESTUEN GARRANTZIA

Habitatetako duten garrantzia ikusirik, guztiak babestea ezinbestekoa da, eta hori bide osoan: ugalketa guneak eta neguko habitatak, baita bidean dituzten hezegune eta atsedene guneak ere. Finean, korridore babestua izan beharko lirateke migrazio bideak. Badira legedia eta tresna batzuk zentzu horretara doaze-

nak: Europar Batasunak 2009an harturiko Hegaztien Direktiba (1979koa ordezkatu zuena), txoriez gain, arrautzak, ohatzeak eta habitatak babesten dituen Natura 2000 sarearen barnean diren Kontserbazio bereziko eremuak eta Babes bereziko eremuak. Baina hegazti desagertzea geldiarazteko, aldaketak sistemikoa izan beharko luke, babestu arren, beste sektoreetan bideraturikoak guztia deuseztatu dezakeelako: "Gure sozioekonomia ingurumenarekin uztartu beharra daukagu. 'Jasangarritasuna' oso berba polita daukagu, baina alde batetik lortua bestetik zapuztu daiteke", Unamunoren hitzetan. Direla pestizidak, makroproiektuak, turistifikazio masiboa, hirigintza... trantsizio ekologiko orokorrik gabe, ez dira nahikoak izanen babes politikak.

Erreportajea bukatu eta entzun dira Dindartek espero zituen lehen lertsunak Baxenabarren, eta Urdaibai aldean oraindik 60 bat espezie ikusi daitezke. Azkenik agertuko zaiena ez dute oraindik hor: txori zezena. Bakoitzak berean pasako du negua, ondorik, otsailetik aitzina berriz hartzeko bidea. Udaberrian oraindik eta lasterrago egingen dute bidea, habia egiteko lekua ukanen dutelako helburu. Ugalketa eta bakoitzak bere leinuaren iraupena ukanik helburutzat, ez dira gehiegi luzatuko bidean. Bada, kitelako lehen arribaturikoek dituztela habi leku hoberenak hartuko.

FINAL-LAUDENAK

TOLOSA



Azaroak 3, igandea, 17:00



Leidor Aretoa

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Babestea:



Aranzadi: 75 urtez txoriei eraztunak jartzen



JENOFA BERHOKOIRIGOIN JUAN ARIZAGA

Hegaztien eraztunketa erreminta ezinbestekoa dugu espezieei buruzko datuak biltzeko. Txoria atzeman eta eraztun metaliko arin bat jartzen zaie, zeinetan zehazten zaizkion identifikazioaren lekua eta eguna, baita posta kodea ere. Nortasun agiri baten funtzioa betetzen du kode alfanumerikoak, eta hortik denbora-tarte batera eraztundutakoa berriz ikusiz gero hainbat datu argitzeko balio digu: adina, leku batean emandako denbora, bere mugimenduak eta migrazio-bideak, morfologikoki ukandako aldaketak... Pentsa zer nolako informazioa den hori migrazioa aztertzen dabilenarentzat. Funtsean, horretarako hasi zuen eraztunketa Aranzadi zientzia elkarteak orain duela 75 urte.

1949an osatu zuten bulegoa Donostian eta orduz geroztik jarraitu dute garatzen, baita Espainiako Estatura zabaldua ere eraztunketa tokien sarea. Dagoeneko 200.000 hegaztik daramate "Aranzadi" posta kodea eta kopurua urtaroz urtaro emendatuz doa 500 bat eraztun-jartzaileri esker. Egindako ekarpena azpimarratzeko eta eskertzeko xedez, 30 urtez eraztunak jartzen aritutakoak omenduko ditu elkarteak azaroko lehen asteburuan. Eraztunei esker aberastu dutelako jakintza zientifikoa. Aranzadik "mugarri esanguratsu batzuk" jarri izana azpimarratzen du bulegoko zuzendari Juan Arizagak: "Doñanan [Andaluziako naturagune babestua] eraztuna jarritako koartzatxo txikiek beren migrazio-ibilbi-

deetan Atlantikoa zeharkatzen zutela jakin genuen Aranzadiren eraztunei esker. Izan ere, hegazti haien eraztunak Brasiletik iritsi ziren eta, hala, lehen aldiz, espezie horren Ozeano Atlantikoaz bestaldeko mugimendua dokumentatu zen".

Aitortza ofiziala duten Europako bulego guztiak biltzen ditu Euring erakundeak, eta nola ez, Euskal Herrikoa ere parte da. European dabilzan hegaztien eraztunketa zientifikoko lanak koordinatzea eta bulegoen artean informazioa trukatzea dira Euringen helburu nagusiak. Ezinbestekotzat du lan zientifikoko horren garapena Aranzadiko Maite Lasok, besteak beste, eta agian nagusiki, klima aldaketak ekarriko dituen aldakuntzak identifikatzeko eta ulertzeko. ●

bertako
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

-rekin BAI!

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz **benetako 24/7/365** zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei



GIPUZKOA
943 903 450
BIZKAIA
946 523 935
ARABA
945 712 822
NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



ANTZUOLA

Nolakoa eta norentzat izan behar du 30 urte barruko hilerriak?

Galdera potolo horren bueltako gogoeta parte-hartzailea egin dute Antzuolan (Gipuzkoa), eta oraintsu aurkeztu dituzte saio irekietan parte hartu duten herritarren ekarpenak. Helburuak izan dira, batetik, heriotzaren inguruko beldurrak eta ezezagutza gainditu eta gaiaz ahalik eta naturaltasun handienarekin hitz egitea. Eta, bestetik, proposamen-zerrenda osatu eta udalaren esku jartzea, hilerrian obrak egitea erabakitzen duenerako.



Naturari lotuagooa legokeen hilerria izan nahi dute antzuolarrek, ez soilik atseginagooa bihurtuko lukeelako, baita estetika "neutro eta berdinzalea" emango liokeelako ere, nahiz eta aukera izan hobi bakoitzean elementu pertsonalak jartzeko, "beti ere estetika orokorra zainduta". Sinestunak izan ala ez, banaketarik ez litzateke egin behar, baina hobietan jarritako ikur eta bestelakoek ez dute agerian laga behar nor den "maiteago" edo nor "aberatsago".

Beldurrezko pelikulekin lotzen ditugu sarri hilerriak. Lau horma gris, eta horien barruan hamaika hobi gris, metalezko atek eta metalezko gurutzak. Inguruari kolore apur bat ematen dioten loreak ere ikusiko ditugu, baina baita sasiek hartutako txokoak ere. Ez, orokorrean ez gaituzte eroso sentiarazten. Gainera, geroz eta herritar gehiagok erabakitzen du gorpua erraustu eta errautsak itsasoa edo mendian zabaltea. Hala, udal hilerriek beren "funtzioa" berreskuratu beharra dute, "gizartean ematen diren aldaketei erantzun eta kalitatezko zerbitzua eskaini". Nere Erkiaga lekeitiarrak tanatologia ikasketak dituen eginak, eta Antzuolako prozesua bultzatu duen Hil Arte Bizi egitasmoko kidea da. "Egungo gizarteak heriotza ezkutatzen egiten du, beldur patologikoa diogu, eta bizi dugu gauza pertsonal bat baino ez balitz bezala", kontatu digu, kolektiboan ere eragin nabarmena duenean.

"Gabezia ugari dugu heriotzaren inguruan, oinarri-oinarritik hasita", dio, hura isilarazteak dakartzan ondorioak aipatuta. Hilerriaz gaindiko hamaika konturi buruz hitz egin digu, subjektu politiko gisa hauspotu ditzakegun aldaketez, besteak beste. "Heriotzarekin harremana duten gaietan ahalduntzeko, herritar eta komunitate bezala, ezinbestekoa zaigu lanketa esparru guztietan egitea, izan zahar-egoitza, osasun zentro, udal, auzo edo ikastetxeetan".

Alferrik ari gara isilean gordetzen. Are, Erkiagaren iritziz "ezjakintasunak egoera inhumano asko sortzen du; sekulako astakeriak egiten dira, ez dira bistaritzen eta...". Zaintza aringarri pediatrikoek edota ospitaleetako errealitateaz luze aritu ostean, legedia ezagutzea funtsezkoa dela aipatu digu, jakitea zein eskubide dauzkagun, erabakiak gure kabuz hartu ahal izateko; izan ere, uste baino gauza gehiago egin dezakegu. Udalek, adi-

bidez, heriotzarekin lotutako eskumen ugari daukate, baina horiei buruz apenas dakigun ezer. Esaterako, hilerri batzuk Elizarenak edo pribatuak diren arren, gehienak udalen esku daude, publikoak dira, "kanposantu" deituagatik ere. Hor eragitea du helburu Antzuolan egindako gogoeta prozesuak; ideia-zerrenda luzea jarri dute udalaren esku, hilerriari lotutako proiekturik abiatzea erabakiko balu, oinarri bezala baliagarria izango zaiola koan. Bada beharra, hilerriak ez direlako denboraren poderioz beste zerbitzu publikoen moduan garatu eta egokitu, duela ehun urte pasatxotik berdintsu mantentzen dira, nahiz eta gizartea aldatzen ari den etengabe.

Nor da hilerrien jabea? Nor beilatokia? Nolakoak dira? Non daude kokaturik? Nork zaintzen ditu? Nolakoak dira panteoiak? Nolakoak errautsentzako kolunbarioak? Hildakoak agurtzeko bada toki duinik hilerrian? Eta beilatokian? Eta



Zaintzaren gaiari garrantzi handia eman diote antzuolarrek, aintzat hartuta hobi asko ez direla txukun mantentzen, ezta loreak edota belarrak ere. Argazkian, Donostiako Polloeko hilerria.

herri-gunean, ekitaldi zibilak egiteko? Bada udal langilerik gaiaren inguruan formazioa jaso duena, senideei laguntza eskainiko diena, edozer antolatu nahi dutela ere? Hileta enpresek zer bilakae-ra izan dute? Nolakoak dira eskaintzen dituzten zerbitzu eta tarifak? Hamaika eta bat galderaren bueltan aritu dira solasean herritarrak 2023ko urtarrilaz geroztik. Ondorioztatu dute hilerriak bi funtzio dituela. Batetik, praktikoa, gorpuzki eta errauntsentzako lekua den heinean. Bestetik, sinbolikoa, maite ditugunak oroitu eta omentzen direlako bertan. Jainko, zero, berpizkunde, espiritu edo dena delakoetan sinetsiko dugu ala ez, baina norbait hiltzean maitasun sentimendua beti izango da, emozio zurrunbiloaren erdian.

ERREALITATEA EZKUTATU

Funtzio sinboliko horrek indar handia du umeen artean. Haiek izan dira gogoeta prozesuan protagonista nagusietakoak, Herri Eskolan heriotzaren bueltan 1980ko hamarkadaz geroztik egiten ari diren lan-ketaren ildotik. Duela bi urte inguru, adibidez, hiruzpalau urteko umeak jaiotzari buruzkoak ikasten ari zirela, heriotzaren gaia atera zen –haurrek hurbileko esperimentziak kontatu zituzten–, eta geroago ama batek heriotza perinatalaz –haurdunaldian edo jaio berrian hiltzen diren haurrez– hitz egin zien. “Ikastetxean heriotza oso presente dago, bizitzaren parte da, eskutik helduta doaz, edonori gerta dakioke edozein momentutan”, kontatu digu Josune Jimenez irakasleak. “Naturaltasunez” heldu diote gaiari Antzuolan,

OIARTZUNGO BEILATOKI PUBLIKOA

Heriotzarekin lotutako zerbitzuen publikotasuna bermatzea izan da Antzuolako herritarrek egindako eskaera ugarietako bat, eta, horren baitan, tanatorio edo beilatoki publiko eta erabilera librekoak sortzea, hileta-zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresa erraldoiek irentsi ez ditzaten. Hala, gogoeta prozesuaren aurkezpen ekitaldira Oiartzungo alkate Joana Mendiburu ere gonbidatu zuten, hamahiru urte bete dituen beilatoki publikoaz hitz egiteko.

Merkatu-ikerketek diote hemendik denbora batera herritarren gehien-

goak ez duela beilarik egingo, neurri handi batean zerbitzua eskaintzen duten enpresen jokoeragatik. “Ez badugu merkatu logikan sartu nahi, ez badiogu enpresa handien jokoari men egin nahi, udalek esku hartu beharko dute, eta erabilera libreko beilatokiak sortu, adibidez”, dio Mendiburuk. Oiartzungoa “txikia eta iluna” zen, harik eta 2011n berria egin zuten arte. Garai hartan bi enpresak agertu zuten zerbitzuaren jabe egiteko intentzioa, baina azkenean udalak bere gain hartzea erabaki zuen. Sinplea da funtzionamendua. Beilatokia erabili nahi duten herritarrek Udaltzaingora deitzen dute –edozein egun eta ordutan–, giltzak hartu eta eurek erabakitzen dute zein

ordutatik zein ordutara izango duten zabalik –gehienez 48 orduz–. Beilatokia bi egunez baliatzeak 170 euro balio du; merkea da, ohituak gaudenerako. “Jendea agurtzeko leku polita da, gainera, zelaia inguruan eta Aiako Harriak parean”. Alde ederrekoa da kokalekua, industrialdeetan dauden arimarik gabeko pabiloi grisekin alderatuz gero.

“Heriotza pendulu bat izan da gizartearen eboluzioan”, zioen Nere Erkiagak, *Goierriko Hitza*-k plazaratutako elkarrizketan (2024-06-28). “Iraganean, Elizak kontrolatzen zuen gaia, eta beldur itzela sortu. Orain beste muturrera mugitu gara. Aipatu ere ez da egiten ia, eta heriotza poligono industrialetara eramanez dugu; ezigauza bihurtu gara”.

Herritarrek aipatu dute udalak izan behar duela zerbitzu publikoaren kontzientzia, eta pribatizazio arriskuari aurre egin behar diola

umeeek euren larruan bizi izan dituztenak ikasgelan landuta: amama hil zaiela, osaba, etxeko txakurra edota eskolan dauzkaten arraintxoak.

Hain justu, “hainbat urtetan dolauren eta heriotzaren pedagogia lantzeagatik” Gehiago Gara ekimenaren aitortza jaso zuen iazko abenduan Antzuolako Herri Eskolak. Hil Argi eta Bizipoza elkarteek sortua, haurren heriotza eta heriotza haurrekin “naturaltasunez eta gizatasunez” bizitzea du helburu proiektuak. “Kosta egiten da norbere bizipenez edota gehien maite dugun pertsonaren heriotzaz hitz egitea”, zioen Herri Eskolako zuzendari Silvia Ezpeletak, Gehiago Gararen aitortza jaso zutenean. Gainera, irakasle asko ez daude gaia lantzeko nahikoa prestaturik, eta batzuek nahiago dute errealitatea ezkutatu. Ezpeletaren hitzetan, errealitatea ezkututzen denean haur eta gazteei ez zaie aukerarik ematen “bizitza bera kontzienteago eta gizatiarrago bihurtzeko”. Alegia, “galderak, kezkak eta beldurrak adierazteko eta lantzeko ateak ixten dizkiegu”.

Hilerrien inguruan aritzeko oinarria bazegoen beraz, eta hiruzpalau urteko umeen ekarpenak bezalaxe, 12-13 urteko gazteenak ere jaso dituzte txostenean.

“HILERRIA OSO GRISA DA”

Egun batean hilerriara irteera egin zuten umeei, eta eskolara itzultzean aipatu zuten, besteak beste, grisa zela, zikina zegoela (plastikozko zorroak eta loreak lurrian, kristal hautsiak...), eta apurtutako ate baten barruan hezurak ikusten zirela. Eta behar duela kolore gehiago, zuhaitz asko, marrazki politagoak hormetan, musika, bihotz handi bat sarrera nagusian –hildakoak norbere bihotzean daudelako–, pastelak jateko mahai eta aulkia, animalientzako hilobiak, errautsentzako leku polita, eta abar. Hilerriak igerileku bat behar duela ere aipatu zuen bakarren batek; antza, denbora daramate Antzuolako umeei igerilekua eskatzen, txostenaren aurkezpenean Erkiagak barre artean azaldu zuenez.



Nere Erkiaga Hil Arte Bizi elkarteko kideak kontatu digu Antzuolako Udalak eskaera jaso duela, herritar musulmanak ere hilerrian lurperatzeko aukera izan dezaten. Halaber, eliztarrek eta apaizak berak gogoeta-prozesuan proposatu dute erlijio ezberdinetako sinestunak jasotzea.

12-13 urteko gazteen ustez ere, hilerria ez da atsegina; zergatiaz galdetzean, “heriotzaren inguruko beldurra” aipatu dute, eta espirituez aritu dira batzuk. Euren arabera ere kolore gehiago behar du, argitasun handiagoa, musika... Eta hilerria eta hilobiak zainduko dituen pertsona bat egotea bertan, hobiak garbitu eta konponduko dituen, loreak txukun jarri, belar txarrak kendu... Hain justu, gogoeta prozesuan parte hartu duten elizako andreak ere ekarri dute zaintzaren gaia hizpidera: “Nork zainduko ditu hildakoak? Inor ez badoa euren ondoren hilerriara, zertarako han egon?”.

PRIBATIZAZIOARI AURRE EGIN

Helduek proposatutako ideia mordoia jaso dituzte txostenean. Horien artean: hilerriak izan behar du herritar guztientzako lekua, jatorri, ideologia, sinesmen/erlijio edo klasea edozein izanik ere; udalak izan behar du zerbitzu publikoaren kontzientzia, eta pribatizazio arriskuari aurre egin; gainera, mantenu-gastuak aintzat hartu behar ditu; hilerria dela ezkutatu gabe, baina natur-gune edo parkea izatea, hobien artean ibili edo lasai egoteko; estetika neutroagoa izatea, ez dadila antze-man adibidez nor den aberatsagoa eta nor pobreagoa; horrekin lotuta, ez bihurtzea hildakoak nork gehiago maitatzen dituen erakusteko lehiaketa edo erakusleihoa; iturriak jarri eta uraren soina entzutea; gorpua lurpean mantendu nahi duenak epea luzatzeko aukera izatea; senideak elkarrekin kokatzeko aukera; errautsak zabaltzeko lekua; heriotza perinatalera-

ko gunea; hilerriaren erabilerarako tramineak eta informazioa gardenak izatea; agurrak egiteko leku goxoa; edota horiek antolatzen lagunduko duen udal langile bat egotea, ezkontza zibilen kasuan gertatzen den moduan.

“Agurra bideratzen duenean enpresa edo kanpoko pertsona batek, oso hotz gera daiteke eta intimitatea galtzen da”, irakur dezakegu txostenean. Aurkezpenen bost lagunek hartu zuten parte: Nere Erkiagak, Josune Jimenez irakasleak, Antzuolako alkate Olatz Lezetak, prozesua dinamizatu duen EHUKo Parte Hartuz ikerketa taldeko kide Andere Ormazabalak, eta Oihartzungo alkate Joana Mendiburuk, zeinak, udalerriek heriotzaren inguruan egin dezaketenen lanketaren harira, hango beilatoki publikoaren esperientziak hitz egin zuen [ikus koadroa]. Ormazabalak hitzetan, “esparru honetan ere merkatu-logika nagusitu da, eta Antzuolakoa bezalako prozesuak inportanteak dira pribatizazio joerari aurre egiteko, udala eta herritarrak kontzientziatu eta mugiarazteko, subjektu politiko gisa”.

Gogoeta prozesuan ikusi da udalek erantzun bat eman beharko luketela. “Aztertutako beharko dugu zer egin daitekeen epe motzean eta zer luzean, ez baitiogu buelta askorik eman”, dio Antzuolako alkate Olatz Lezetak: “Guztiok ukitzen gaitu heriotzak, nahi edo ez, denoi helduko zaigu. Hilerriak denon eskura egon behar du, badirudi-eta Elizarena dela; denok egon behar dugu bertan eroso, bai hildakoak, baita bizirik daudenak ere”. ●

ALEMANIAKO EZKERRA

BSW geratzeko etorri da

Alemaniano Brandenburgoko estatuaren azken hauteskundeetan Sahra Wagenknecht Aliantzak (BSW) botoen %13,5 lortu zuen. Alderdia Sahra Wagenknecht-ek sortu zuen, Die Linke alderdi ezkertiarren kide ohiak. Die Linke botoen %10,7tik %3ra iragan da, eta estatuko legebiltzarretik kanpo geratu da, Berdeak moduan. BSW alderdi berria nola ikusten duten azaltzen dute Ingar Solty eta Sebastian Friedrichek *Jacobin* aldizkarian. Rosa Luxemburg Fundazioko ikertzailea da Solty eta Friedrich Hanburgoko kazetaria.

 INGAR SOLTY - SEBASTIAN FRIEDRICH

A Sahra Wagenknecht Aliantza (BSW) alderdiaren sorrerak eztabaida piztu zuen: Alemaniarentzako Alternatiba (AfD) eskuin muturreko alderdiaren gorakada lagundu edo zailduko ote zuen? BSW ofizialki sortu aurretik ere, Sahra Wagenknechten alderdiak eskuinaren gorakada moteldu eta Alemaniako eztabaida politikoa gai sozioekonomikoetara bideratu ahal izateko itxaropena adierazi genuen, tradizionalki ezkerre indartsuena den eremura.

BSW urtarrilaren amaieratik existitzen da eta hiru hauteskundetan parte hartu du: Europako Parlamentukoetan eta Alemaniako ekialdeko bi eskualdekoetan, Saxonian eta Turingian. Gauzatu al dira itxaropen horiek? BSWk lagundu al du eskuinaren aurka borrokatzen edo lagundu al du paisaia politikoa eskuine-rantz lekualdatzen?

Ekaineko Europako hauteskundeetako boto-emaileen joan-etorrien azterke-

tak iradokitzen duenez, BSWren emaitzek Die Linke ezkerreko alderdiari eta boterean dagoen alderdi sozial-demokratari (SPD) egin zieten kalte. Infratest Dimap institutuaren arabera, BSWko boto-emaile gehienek lehen SPDri (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata) eta Die Linkeri ('Ezkerra' esan nahi du) ematen zieten botoa: 580.000 boto-emailek SPDri eta 470.000 boto-emailek Die Linkeri. BSWko 160.000 boto-emailek soilik bozkatu zuten AfDren alde 2021eko hauteskunde federaletan. Inkesta horren arabera, irailaren 1ean BSWk Turingian eta Saxonian zituen boto gehienak ere ezkerretik zetozen (zentzu zabalean), eta AfDtik zati txiki bat baino ez.

Lehen begiratuan, agerikoa dirudi BSWk ezkerreko alderdien botoak jasotzen dituela eta AfDko hautesleak ez dituela ia murrizten. Urte hasierako inkestetan, AfDk botoen %22 inguru lortu behar zuen estatu mailan, baina %16

baino ez zuen eskuratu Europako hauteskundeetan. Agian argigarriagoa da hauteskunde osteko inkestetan haren boto emaileen ia erdiak adierazi zuela AfDri eman ziola botoa, baina ez oso uste sendoagatik, baizik eta beste alderdiekin desengainatuta egoteagatik.

Hautesle horiek, teorian, konbentzituak izan litezke berriro eremuz aldatzeko, alternatiba erakargarri bat proposatzen bazaie. Ikuspegi hori aberastasunaren birbanaketa-neurriak proposatzear datza, gutxienez AfDko hautesleen multzo bat zatitzeko. Bali-teke AfDko hautesleak gero eta gehiago proletarizatzea, eta prozesu hori eskuin erradikaleko alderdietan ikus daiteke AEBetan, Frantzian, Erresuma Batuan eta beste herrialde batzuetan, baina ez da saihestezina. Indar sozialistek hautesle horiengana jo dezakete eta, gainera, jo behar dute, eta ez beren burua babesteagatik bakarrik.



Sahra Wagenknecht-en izena darama alderdiak (BSW, behin-behinekoz); Die Linke ezkerreko alderdiaren buruzagietakoa izan zen aurretik.

DESAZELERAZIO MOTELA

BSW establishmentaren aurkako alternatiba gisa ikusten da, Alemaniako sindikatu-konfederazioari lotutako Ikerketa Ekonomiko eta Sozialeko Institutuaren (WSI) azterlan baten arabera, bereziki Ekialdeko Alemanian eta berriki AfD bozkatu dutenen artean. PDS (Sozialismo Demokratikoaren Alderdia, Die Linkeren aitzindarietako bat) ahaltsua zen eskualdeetan eta komunitateetan. BSWk arrakasta du langabezia-tasa handia den eta biztanleria zahartuta dagoen eskualdeetan. WSIren arabera, bereziki erakartzen ditu errenta baxuko hautesleak, etorkizunari buruz ezkorrak direnak eta erakundeetan ia konfiantzarik ez dutenak.

Turingia eta Saxoniako BSWren emaitzek batez ere Die Linke kaltetu zuten, baina ziurrenik AfD are gehiago aurreratzea ere eragotzi zuten. Bi lander horietan, inkestek botoen %35-36 ema-

Lehen begiratuan,
agerikoa dirudi BSWk
ezkerreko alderdien botoak
jasotzen dituela eta eskuin
muturreko AfDko hautesleak
ez dituela ia murrizten

ten zizkioten AfDri. Infratest Dimap-en arabera, Turingian inkestatutako BSWko boto-emaitzen %26k adierazi zuen AfDri emango ziola botoa, BSWri emateko aukerarik izan ez balu. Saxonian, zifra hori %33raino igoko litzateke. Ehuneko hori

AfDren emaitza errealarekin alderatuz gero, alderdi horrek %37 lortuko zukeen Turingian eta %35 inguru Saxonian.

Seguruenik, BSWra pasatu diren Die Linkeko boto-emaitze ohi askok ez lioke botorik emango azken horri, BSWk gora egin aurretik ere haren ospea beherantz zihoalako. Zenbakiei dagokienez, BSWa AfDren igoera zertxobait moteltzeko moduan egon da, baina ez da inola ere aringarria izan. Zer esan daiteke Alemanian, oro har, eztabaida politikoa eta komunikabideen erretorikan izan duen eraginaz? Alderdiaren arrakasta erlatiboak esan nahi du, ezkerrearen eta ezker liberalaren sektore zabalek dioten bezala, horizonte politikoa eskuinerantz lerratzen ari dela?

Eskala sozialaren goikoekin edo behekoekin da leiala BSW? Politika ekonomikoan eta sozialean BSWk argi sentiarazi du bere presentzia. Die Linke alderdiko diputatu ohiek osatutako talde parlamenta-

BSW Die Linkeren eskuinean dago gai sozio-ekonomikoetan, edota immigrazioari dagokionez, baina oraindik establishmentaren aurkako indartzat har daiteke

rioaren lehen eskaeretako bat gutxieneko soldata igotzea izan da. Pentsioak handitzea ere eskatu du alderdiak. Aldi berean, etengabe hitz egiten du enpresa txiki eta ertainen (ETE) sustapenaz, "arrazionaltasun ekonomikoa" kontsignatzat hartuta.

Orientazio hori kontraesankorra da. Kapitalaren eta lanaren arteko antagonismoa bereziki indartsua da ETEen eta soldatapekoen artean. Ekonomikoki dinamikoak ez diren eskualdeetako enpresa txikien ustez, jardun sindikalaren aurkako jarrera sendo bat erakustea funtsezkoa da estatuko zein nazioarteko lehia kapitalistari aurre egiteko. BSWko ezkerreko indarrentzat, halaber, garrantzitsua da epe laburrean "monopolioen aurkako aliantzetan" oinarritutako politika ekonomikoa garatzea. BSWren ustez, gobernu federalak -SPDK, Berdeak eta FDPko neoliberalak- enpresa handien aldeko industria-politika egiten du, eta horrek benetako lehia kapitalista faltsutzen du. Kritika horretan, BSW asko gerturatzan da FDPren ikuspegira.

Hala ere, ETEei hainbat gauza agintzen die BSWk eta soldatapekoek beste hainbat, eta hor sortzen diren kontraesanek tentsioa ekar dezakete alderdira. Batetik, BSW kapitalaren gaineko zergak handitzearen aurka dago, eta langabeen aurkako zigor zorrotzagoak babesten ditu, kalitate txikiagoko enpleguak onartzera behartzeko; bestetik, erretiro handiagoak eta industria- eta egitura-politika sendoa- goak eskatzen ditu langileak laguntzeko.

Bestalde, ez da oso gertagarria Errusia-Europa lankidetzaren energetikora itzultzea, ezta egoera horrek ekarri zuen elektrizitate industrialaren garaiko prezio baxuetara ere. Aitzitik, datozen urteetarako langileen eta enpresarien arteko borroka areagotzea espero behar da. Orduan ikusi beharko da nola kokatuko den BSW Ale-



DIE LINKE



CHRISTIAN MANG / REUTERS

maniako kapitalaren aldarrikapen gero eta premiazoagoen aurrean: 42 orduko astea, erretiro-adinaren igoera gutxienez 70 hamar urtera arte, greba-eskubidearen murrizketa sektore publikoan eta sozietateen gaineko zergaren murrizketa. Gatazka horretan zatiketa potentzial baten itzala ikus liteke.

Die Linkeren ustez, BSWren politika ekonomikoa eta sozialak, batez ere asiloari buruzkoak, frogatzen dute alderdi berria Die Linketik ateratako eskuindarren zatiketa hutsa izan zela. BSWk berak ere argi azpimarratzen du ez duela "Die Linke 2.0" bat izan nahi. Berbarako, Saxoniako BSWko hautagai nagusia den Sabine Zimmermann Die Linkeko buruzagi ohiak hala ikusten du bere alderdia: "SPDren eskuinean eta CDUren (kristau-demokratak)

ezkerrean dago". Hauteskunde gauean, Zimmermannek azpimarratu zuen ARD Alemaniako telebista publikoan CDUk eta BSWk bazituztela adostasun politiko garrantzitsuak, batez ere "hezkuntzan eta migrazio politikan".

MAILUAREN ETA INGUDEAREN ARTEAN

BSW Die Linkeren eskuinean dago politika ekonomikoa eta immigrazio-politika, baina eskuineko zatiketa hutsaren irudia ez da hain argia BSWren funtsezko gai batean: bakea eta distentsio politikak. Wagenknechten aldeko Bundestageko diputatuek, batez ere bake eta atzerri politikan zituzten desadostasunengatik egin zuten alde Die Linketik. Beren irteeraren arrazoi nagusietako bat izan zen Die Lin-



Askok pentsatu zuten BSWk botoak AfD eskuin muturreko alderdiari –behean ezkerrean haren jarraitzaile bat– kendu ahal izango zizkiola, baina ez, batez ere Die Linkeri –ezkerrean goian– eta SPDri kendu dizkio.

kek ez kritikatzeari behar beste Mendebaldeak Ukraina sostengatzera bideratutako politikak. Adibidez, Die Linkek gobernu federalean SPD eta Berdeekin parte ez hartzeko arrazoia izan da hark NATOren aurka zuen posizioa, eta Wagenknecht eta beste diputatu batzuk beti egon dira aurkako jarrera hori defenditzen. Estrategia horrek, ordea, porrot egin zuen 2021eko hauteskunde federaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, erraz ulertzen da zergatik Die Linkeko oinarritzako kide eta hautesle asko BSWra pasatu diren, batez ere ekialdean. BSW Die Linke-aren eskuinean dago gai sozio-ekonomikoetan, edota immigrazioari dagokionez, baina oraindik establishmentaren aurkako indartzat har daiteke. Die Linke da oraindik Bundestag-eko establishmentaren aurkakoena, baina gero eta gutxiago, eta gero eta gehiago ikusten da SPDren eta Berdeen arrisku gabeko luzapen gisa, haiek baino pitin bat ezkerrekoak.

Immigrazioa ere BSWren kezka nagusien artean ari da finkatzen. Alderdiaren sorreran gaia ez zen asko aipatu, baina azken hilabeteetan eztabaidagai nagusietako bat bihurtu da, Ukrainako gerraren eta gai sozialen maila berean. Duela hamar urte, Deutsche Bank "erloju-bonba" zela esan zuen Wagenknechtek, eta gaur egun gauza bera esaten du migratzaileei buruz. Uztailaren erdialdean zera idatzi zuen X [Twitter] sare sozialean: "Gelditu erloju-bonbak sarrarazten dituen kontrolik gabeko immigrazioa". Sabine Zimmer-

mann bere alderdikidea ere argi mintzatu zen Saxoniako hauteskunde ondorengo balorazioan: aldatu beharreko politikan lehentasuna eman zion kontrolik gabeko immigrazio politikak aldatzeari. Lehenik hori, hezkuntza eta bakea gero datoz.

Immigrazio politikan, BSWk eskuinaren joera orokorrari jarraitu dio, uste argirik gabe. Hori hauteskunde-taktika batek eragindakoa balitz, BSWk jakin beharko luke AfDrekiko hurbilketa horrek azken honi bakarrik egiten diola mesede. Izan ere, immigrazioa mugatzea lehentasun-tzat duten boto-emaeleek nahiago dute jatorrizkoa kopia baino.

Aldi berean, poztu beharra dago BSWk, adibidez, European irismen ertaineko misil nuklearrak jartzeko erreferenduma egitea eskatzen duelako. Alemaniako lau milioi herritar agertu ziren misilak ezartzearen aurka 1980ko hamarkadan "Krefeldekoei" sinatu zutenean. Olaf Scholz kantzillerrak eta Omid Nouripour Berdeen presidentekideak bat-batean egin dute Errusiarekin negoziatzeko deia, eta hori bada Ukrainaren egoera ahulagatik, amerikarrak erretiratzen ari direlako eta Ukrainako herritarrek ere gero eta nekatuago daudelako, baina adierazpen horiek egiteko arrazoi erabakigarria BSWren emaitza onak izan dira.

ZALANTZAZKO ETORKIZUNA

BSWren etorkizuna, neurri handi batean, estatuko eta nazioarteko giro politikoaren arabera izango da. Dato-


BSWren etorkizuna zalantzaz beterik ageri da gai batzuetan duen jarrera nahasiagatik; eta bereziki, kontraesankorra da esku batekin soldatapekoen interesak defendatu nahi izatea eta bestearekin kapitalarenak

zen hamarkadetan, ziur aski, Txinaren aurkako gerra hotza izango da nagusi, "autokrazien aurkako demokrazien" diskurtso sinesgaitzarekin legitimatuko dena. Distentsio politikak dira BSW beste alderdietatik gehien bereizten dutenak, hutsune hori berak betetzen du nagusiki. Eta are gehiago izango da horrela, Die Linke urrian egin beharreko kongresuan NATOrekiko jarrera kritikoa arintzeko ikuspegiak irabazten badu.


Eremuaren bestaldean, AfDk gobernu-indar bihurtu nahi badu, egun EB, euroa, AEBak eta NATOrekiko ikuspegi adiskidetsuagoa landu beharko du. Indar eskuindar eta arrazista gisa, AfD Alemaniako beste alderdi burgesekin aliantzak osatzeko moduan egongo da, mendebaldeko aliantzaren eta "gure balioen defentsaren" konpromisoan oinarrituta. Italiako eta Frantziako eskuin muturreko alderdi modernizatzaileek egindako bidea da boterea lortzeko duen bide bakarra, hau da, alderdiaren melonizazioa.

Bitartean, atzerri politikaren bila-kaera erabakigarria izango da BSWren etorkizunerako. Hala ere, bere distentsio politika zorrotza erakargarria izan badaiteke ere, bere etorkizuna zalantzaz beterik ageri da beste gai batzuetan duen jarrera nahasiagatik, eta bereziki kontraesankorra da esku batekin soldatapekoen interesak defendatu nahi izatea eta bestearekin kapitalarenak. ●

ILUSTRATZAILEAK




DOM CAMPISTRON



PAULA ESTEVEZ



PAULA ESTEVEZ



DOM CAMPISTRON

Ezkutuan geratzen diren egileak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Lagun bat dut ikus-entzunezkoen munduan argi eta soinu lanetan ibiltzen dena. Alegia, pantailan film edo dokumentalaren amaieran agertzen diren izen horietako bat. Berarekin ikasi dut, lan hori egin duten guztiei errespetuz bada ere, amaierako kredituak bukatu arte itxaroten. Artikulu bateko argazki edo ilustrazioekin ere antzeko zerbait gertatzen denaren susmoa dut. Irudi horien egileak ezkutuan geratzen direla. Gaur Paula Estevez (Donostia, 1984) eta Dom Campistronekin (Aldude, 1994) hitz egin dut, astekari hone-tako iritzi-artikuluen ilustratzaileekin.

Ostiralero jasotzen dute aste horretan ilustratu beharreko testua. Biek aitortu digute jaso bezain pronto irakurtzen dutela eta gero "egun batzuk" hartzen dituztela imajinarioari tarte bat irekitzeko, testuari buelta bat emateko, irudiak pentsatzeko. Estevezek, ordea,

marrazten hasterako testuko kontzeptu nagusiak zerrendatzen ditu: "Ondoren, kontzeptu horiek irudikatze moduak bilatzen ditut zirriborroen bitartez. Batzuetan oso kontzeptu abstraktuak dira edo ideia asko biltzen ditu testuak, eta orduan zati edo ideia zehatz bati heltzen diot". Campistronek, aldiz, azaldu digu lan egiteko modu desberdinak dituela jasotzen duen testuaren eta egilearen arabera: "Batzuk irudiak idazten dituzte haien hitzetan eta orduan irudi horiek errazki erabiltzen ahal ditut ilustrazioaren marrazteko. Bertze batzuetan gaia aski teorikoa izaten ahal da eta orduan entseatzen naiz testua bere orokortasunean irudikatzen".


SAREAK ITURRI

Hala adierazi digute biek, sareak dituztela inspirazio-iturri. "Gaur egun inspirazio-iturri gehiegi dauzkagu", aitortu

digu Estevezek eta berak azpimarra jarri nahi izan du kazetaritzari lotutako ilustrazioari dagokionez *The New Yorker*-ek argitaratzen dituen lanetan. Aldiz, Campistronek Instagramen jarraitzen ditu ilustratzaile askoren lanak, "lagungarri zait ideia berri batzuen ukaiteko", baina beti bilatzen ditu berriak ere.

ARGIAkoa ez da egiten duten lan bakarra. Donostiarraren kasuan, azken hilabeteetan Elkarrek urte amaieran argitaratuko duen *Linbo Planeta* haurrentzako komikian ibili da lanean buru-belarri eta baita Tupust! Kolektiboak maiatzean kaleratutako hirugarren komikiaren promozioan ere. Aldudekoaren ilustrazioak *Berria*-n edo *Iparraldeko Hitz*-a-n ere topa ditzakegu. *Bekatorosak* liburua irakurtzea gomendatu digu, eta ezker-eskuin muralak tindatzen ari denez, posible da hormaren batean ezaguna zaigun eskuren bat topatzea. ●

Bakerik ez hibakushentzat



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Japonia, 1945eko abuztuaren 6a eta 9a. AEBek bonba atomiko bana bota zuten Hiroshima eta Nagasaki hirietan milaka eta milaka hildako eraginez; kopuru zehatzik ez dagoen arren, urte horren bukaeran hildakoak gutxienez 210.000 inguru izan zirela diote kalkulu zuhurrenek. Baina hildakoez gain, bizirik irtetea lortu zutenak ere asko izan ziren. Gaur egun 140.000 inguru geratzen dira eta japonieraz hibakusha esaten zaie, literalki "bonba atomikoak eragindako pertsona". 2024ko Bakearen Nobel saria haiei ematea erabaki dute.

Bonben inpaktu zuzena jaso zutenek betirako gorputzean eta aurpegian markatuta geratu ziren erredurak eta zauriak izan zituzten. Erradiazioaren eraginez, hasieran zaurigabe ziruditen askok ere sintoma larriak izan zituzten. Minbizi kasuak ugaltzen hasi ziren aurrerago... Eta ondorio fisikoei eragin psikologikoa ere gehitu behar zaio: batzuek bi hirietatik alde egin zuten eta ez ziren bizi guztian itzuliko; beste batzuek ezin dute ibai inguruetan edo zubietan ibili, uretan flotatzen zuten gorpuen oroimenaren erruz; eta zenbait jaki kontsumitzen ez dutenak ere badira, erretako gorpuen usaina gogorazten dietelako.

Trauma eta beldurrez gain, asko errudun ere sentitu ziren, bizirik irteteagatik eta laguntza eskatzen zutenei ez emateagatik. Keiko Ogura zortzi urteko neskatoa zen orduan: "Eztandaren ondoren, oso larri zeuden bi pertsona hurbildu zitzaiz-



CARL MYDANS / LIFE PICTURE COLLECTION

kidan ur eske. Ura eman nien eta nire aurrean hil ziren biak. Luzaroan nik hil nituela pentsatu nuen".

Hori guztia gutxi balitz, gizarteak ere baztertu zituen hibakushak. Yasuari Yamashitak sei urte zituen. "Jendeak uste zuen gaixotasun kutsakorra genuela. Baztertu behar gintuztela uste zuten, ezin zutela gurekin ezkondu edo gure lagunak izan". Lanean hasi eta berehala hasi zen erradiazioaren eraginak noztzen eta, lanak japoniar kulturaren duen garrantzia medio, "ahula nintzela esaten zidaten, alferra, ez nuela lanik egin nahi". Emakumeentzat egoera are zailagoa zen, garai

hartan beren helburu nagusia ezkontzea baitzen. Keiko Ogurak dionez: "Ezin genuen esan egun hartan hirian ginela. Erradiazioari buruz hitz egiten bagenuen, ezin izango ginen ezkondu-eta". Bizirauleen ziurtagiriak zituzten, arreta medikua eta gobernuaren laguntzak eskuratzea ahalbidetzen zietenak. Baina "ziurtagiria ez erakusteko esaten ziguten".

Hibakusha gutxi batzuk antolatzen hasi ziren eta, denboraz, arma nuklearren aurkako ekintzaile nabarmenak izango ziren. Baina beldurrak, erruduntasunak eta bazterkeriak ia 80 urtez isilik egotera kondenatu zituen gehienak. ●



GUILLAUME BLONDEL

Duela 200 urteko arkeologoaren mezua

Normandiako erromatar garaiko aztarnategi batean lanean ari zirela, arkeologia ikasle batzuek aurkituntza bitxia egin dute berriki: buztinezko eltze baten barruan kristalezko flasko txiki bat topatu zuten, XIX. mendean emakumeek lurrina eramateko erabili ohi zuten horietakoa. Eta flaskoaren barruan duela ia 200 urteko mezua idatzita daukan papertxoa zegoen: "P.J.

Féret, Dieppen jaioa eta hainbat elkarte intelektualeko kidea, indusketak egiten aritu da hemen 1825eko urtarrilean. Ikerketak egiten jarraitzen du Zesarren kanpamendua izenez ezagutzen den eremu zabal honetan". Bi mende geroagoko arkeologoentzat, aldiz, zaila izango da ikerketekin jarraitzea, ur mailaren igoerak mehatxupean baitauka aztarnategia. ●

EUSKAL HERRIKO TOMATE AGROEKOLOGIKOEK %38,6 CO2 GUTXIAGO ISURTZEN DUTE ALMERIAKO TOMATEEK BAINO



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

EHNE Bizkaiak bultzatutako azterketaren emaitzek baieztatu dute eredu agroekologikoan ekoiztuak diren tomateek berotegi efektuko gasen isurketan, eta batez ere energia kontsumoan, inpaktu txikiagoa dutela eredu agroindustrialean ekoiztuak diren tomateekin alderatuta. Honetan, berebiziko garrantzia dute bertakoa izateak eta tokiko merkaturatze bideetan kontsumitzeak, eraldaketa eta garraio faseetan ezberdintasun nabarmenak baitaude.

Nekazaritza da klima aldaketa bultzatzen duten Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) isurketen erantzule nagusietakoa. Elikadura Sistemak beraien osotasunean (ekoizpenetik xahuketara) BEG isurketa globalen %21-37a eragiten dute. Haatik, eredu agroekologikoei BEG isuriak %40 murriztu ditzakete eta lurzorutik karbono bahoitzeko aukerak eskaini.

Baieztapen horietatik abiatuta, EHNE Bizkaiarekin azterketa lan bat egin berri dugu, sasoz kanpo jaten ditugun elikagai agroindustrialek sortutako karbono aztarna, gure inguruan modu agroekologikoan ekoiztuak izan diren elikagaien aztarnarekin alderatzeko. Horretarako, Euskal Herrian sasoz kanpo asko kontsumitzen den elikagai preziatu bat aukeratu dugu, tomatea –kontsumitzen dugun tomatearen %80a baino gehiago inportatutakoa da–. Azterlan horretan, tomatearen bizi-zikloan –hasi ekoizpenetik, eraldaketa eta garraioa barne– kontsumitzen den energia eta karbono isurketa kantitateak neurtu ditugu.

Hauexek jasotako emaitza esanguratsuenak:

- Euskal Herriko tomate agroekologikoei %38,6 CO2 gutxiago isurtzen dute Almeriako tomateekin alderatuta, eta %46,2 energia ez-berriztagarri gutxiago kontsumitzen dute. Bi kasuetan ekoizpena eta garraioa dira CO2 isuri handiena sortzen duten kate-begiak. Ontziratze



Ontziratze eta logistika fasean dago bi ereduen arteko alderik handiena. Irudian, plastikotan ontziratutako Almeriako tomateak.

eta logistika fasean dago bi ereduen arteko alderik handiena, izan ere, tomate agroekologikoetan CO2 isuriak eta energia ez-berriztagarriaren kontsumoa Almeriakoetan baino %91 baxuago dira. Ezberdintasun hauek salmenta ereduarekin lotuta daude, Euskal Herrian ekoiztutako tomateak salmenta zuzenaren bidez merkaturatzen baitira, eta ontzi berrerabilgarriak izanik, karbono aztarna izugarri murrizten da.

- Garraioari dagokionez, tokiko tomate agroekologikoetan %60 murrizten dira BEG isuriak. Almeriakoetan kamioiek 950 km egiten dituzte EAE-ra iristeko, eta beste 20 km furgonetaz txikizkako merkatura iristeko. Eredu agroekologikoan berriz, 43 km egiten dira tomateak inguruko kontsumo taldeetan banatzeko. Alta, azpimarratu behar da tomate-denboraldia zabaldu nahi duten ekoizpen hidropnikoko proiektuek (berogailudun negutegiekin), nahiz eta Euskal Herrian kokatu, gastu energetikoa eta karbono-aztarna Almeriako ereduak baino nabarmen handiagoak dituztela.

- Ekoizpen fasean alde gutxiago dago bi ereduen artean. Agroekologikoan CO2 isurketak %6,6 murriztagoak dira Almeriako ekoizpenarekin alderatuta, eta energia ez-berriztagarriaren kontsumoa %14 murriztagoa da. Horrek zerikusia du Almeriako negutegien energia erabilaren eraginkortasunarekin, hektareako ekoizten den tomate kilogramo kopurua oso handia baita.

Beraz, Elikadura Sistemari lotutako BEG isuriak murrizteko helburua badugu, erabaki politikoei sasoz elikagai agroekologikoen kontsumoa sustatu beharko lukete, eta zuzeneko salmentarako bideak indartu.

Zentzu horretan, Amaia Barredo Elikadura sailburuak aurkeztu berri duen agintaldi-programak zalantza asko sortzen dizkigu; izan ere, sektorearen be-launaldien arteko erreleboa bultzatzea aurreikusten duen arren, programan indarra hartzen duten proiektuak berotegiko laborantzaren aldeko apustua eta teknologia berrietan oinarritutako elikadura industria sustatzeko ekintzailetza-zentroen garapena dira. ●

A ZE FAUNA!

UNE BATEN ETERNITATEA



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU
ARANZADIKO KIDEA

Atal honetan behin baino gehiagotan aipatu izan dugu izaki txikien munduan (gurean bezalaxe) itxurak okerrera eramaten gaituela, sarritan. Eta gaur dakarkigun laguna horren adibide garbia da, animalia gutxi izango baita Lurrean itxura ahulagoa edo kalteberagoa duenik. Horrez gain, bere izenak une bateko bizitzaren berri ematen digu, eta ez dira gutxi telebistan ikusi izan ditugun dokumentalak, bere bizitza motzaren berri eman digutenak. Motza? Bai, gure begien aurrean garatzen dena, baina, ezkutuan, hala ote da?

Goazen atzeraka, bada! Karboniferoan, duela 300 milioi urte (badira!): Lur planetako atmosferak %21a du oxigenoz osatua. Oxigeno kopuru horrek –gaur egungoa baino %7 gehiagokoa– organismoen hazkuntza handitzea dakar. Lehen intsekteoideak ere handiagoak dira gaur egungo intsektuen aldean –70 zentimetroko burruntsiak!–. Horietatik denak desagertu egin dira, bi taldeetakoak (paleopteroak) izan ezik: odonatuak eta gure gaurko protagonistak, efemeropteroak. Lurrean 300 milioi urte bizirautea ez da txantxetako trebezia! Batez ere duela 6-8 milioi urte gizakiok azaldu eta gero...

Baina zein da bere bizi zikloa? 3.000 espezie inguru ezagutzen dira gaur egun, eta haien artean bizi-zikloaren alorrean desberdintasunak badaude ere, espezie batzuen bizi-zikloak urtebete, bi urte edo gehiago iraun dezake. Beraz, hain “efimeroak” ere ez dira! Dena den, badira heldu fasean bost minutu baino gehiago bizi ez direnak.



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

Metamorfosi sinplea betetzen dute, hiru fasekoa, alegia, baina uretako ninfa fasea utzi eta heldutasunera ailegatu aurretik lurreratzen diren intsektu bakarrak dira. Heldutasunera lurrean ailegatzeko gortina eta geletan! Uretatik ateratzeak oso sinkronizatuak izan ohi dira eta dokumentaletan sarri ikusten dira milaka eta milaka ale uretatik ateratzen batera eta ikuskizun ahaztezinaosatzen dute. Arrautzak uretan jartzen dituzte emeek, eta jarri aurretik ehunka metro egiten dituzte ibaian gora, korrontearen aurka, arrautzak leku egokian geratu daitezen. Ninfak belarjaleak, haragijaleak edo orojaleak izan daitezke, espezieen arabera. Helduak ez dira elikatzen, ez

EFEMEROPTEROA

(*Ephemeroptera*)

TALDEA: Intsektua/Ephemeroptera Ordena.

NEURRIA: 1-12 cm.

NON BIZI DA? Ibai eta erreka inguruetan.

ZER JATEN DU? Ninfak belarjaleak, haragijaleak edo orojaleak dira. Helduek ez dute jaten.

BABES MAILA: Ez dago babestuta Europan, Australian espezie bat bai.

baitute digestio-aparaturik. Helduen itxura oso berezia da: “isats” luze batzuk dituzte, berez hiru, baina erdikoa batzuetan ez da ikusten oso motza izan daitekeelako. Hegoak bi edo lau izaten dira eta bizkar gainean biltzen dituzte pausatzen direnean.

Kate trofikoan garrantzi handiko animaliak dira, bai uretako alga eta landaredia erregulatzeke eta baita ere animalia mota askorentzako janari direlako: arrain, anfibio, intsektu eta abar. Esan beharrik ez dago giza-kiontzat ez direla batere kaltegarriak –Asiako espezieen bat izan ezik– edo arriskutsuak. Uren garbitasunaren eta kalitatearen iragarle direnez, eman ongi etorria zuen etxetan! ●

HARIZTI BOROBIL BAT MUGARI



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO CC-BY-SA

Mugek itotzen gaituzte. Ondo esanda, mugek itotzen naute; izan ere, izango da baten bat zeina mugen estuasunean bertan gozo ederki sentituko den. Ni itotzen naute baina, harrigarria, mugak desegin daitezke. Lursail baten mugak, auzo baten mugak, udal baten mugak, eskualde baten mugak, probintzia baten mugak, herri baten mugak, hizkuntza baten mugak eta geure buruaren mugak. Muga fisikoak, irudizkoak, alegiazkoak... denak egin eta desegin ditzakegu. Nire esku dago.

Lagun artista bat sartua da muga desegingintzan, Asier Gogortza beratarra. Argazkilaria da eta izugarritzko lan dotoreak egiten ditu, beti lurraldea, paisaia eta horiekin harreman handia duen arkitekturari lotutakoak; ikusi asiergogortza.net: ezker paretarik gabeko frontoi soilak (*Plaza libreak*), giro zakarrak jotzen duen aldeko etxeen fatxadak (*Mendebalde*), Bigarren Mundu Gerrako bunkerrak argazki makina bihurtuz egindako seriea (*Concrete landscapes*) eta, besteak beste, kuttunena nuena, Leitzako Goiko Soro

baserriaren atarian eroritako gaztaina handiarena, zeinaren gerria biltzeko zazpi lagun behar ziren: jada lurrean argazki kamera bihurtu zuen. Bai, kuttunena nuen. Dagoeneko ez, ordea. Burua ia erotzeraino joanarazi didan bere azken egitasmo erraldoia bertatik bertara bizitu dut. Duela bost urte bizikletan zihoala, aspalditik ezagun zuen haritz (*Quercus robur*) bikote baten azpian geratu eta ezkur pila topatu zuen; haritz haiek batek baialdia eta besteak baiurtea izan, nonbait. Ezkurak jaso eta erein. Eta haritzak etorri. Eta haritzak hazi. Eta Berako eta Urruñako Herriko Etxeak gogatu ditu eta mugak elkartzen dituen bi udalen herri lurretan harizti bat sortu du.

Hariztia du izena Erentzazu mendia-
ren magalean, toki paregabean, sortzen ari den arte-lanak. Hitzak eta jokoak besterik ez zaizkit etortzen hura Asierren eskutik ezagututakoan bizitu nuena azaltzeko. Tartean genuen soinuaren beste artista erral-
doi, eta hala ere lagun bat: Alex Mendizabal; hau bere soinu instalazioak ezartzera igo zen mendira. Mendiko ate edo lepo bat

da tokia, hau da, tontor arteko pasabidea. Bertan bide mordoxka gurutzatzen da: bide, bidaxka, mandabide, pista... Ez da nolanahiko tokia. Makina bat etorri eta joan, eman eta hartu gertatu izango da hor. Hor bizitakoak sentitzen dira bertan. Haritzeko bi zirkulu landatu ditu muga gainea, sarobeak edo jentil baratzeak balira bezala. Zintzarriak. Behorak. Ardiak. Akainak. Gorosti makilak. Paisaia izugarria. Mugak eta horiek igarotzeko hankapauso eta zaldain bilduma bikaina. Bideak lotzen dituzten garomenak (*Pteridium aquilinum*). Garoleku bikainak daude bai paraje horietan. Garometa ederra dago urrutira gabeko Eltzaurdi baserri aldamenean; etxeko aziendaren-
tzako ohatze ederra eta ondoren baratze, soro, sagastirako ongarri bikaina.

Lanaren garapenaz bi liburu berezi argitaratuak ditu dagoeneko, eta hirugarren bat bidean da. Hazten ari den ekin-tza. Hazten ari den hariztia.

Garok, haritzek, landareek ez dute mugarik ezagutzen eta guri begira diote: tira, tira zein txorok jar diezaioke mugarik bere bizitzari? ●

Ekologikoa aukeratuz denok irabazle

Nafarroako Salmenta Puntuen eta Jatetxe Iraunkorren Sarea

Kontsultatu hemen Nafarroako saltokien zerrenda

cpaen.org
navarraecologica.org

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

UNIÓN EUROPEA

"HAZIAK" LIBURUA

"LIBURUAREKIN JENDEA ANIMATU NAHI DUGU HAZIAK EKOIZTEN HASTERA"



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Hazien munduan buru-belarri ari dira urte askotatik Miguel Arribas *Kelo* eta Marc Badal, *Haziak* liburuaren egileak. Hazien ugalketari buruzko azalpen praktikoez gain, elementu historiko, ekonomiko, politiko eta kulturalak jaso dituzte; beraz, barutzerik ez dutenentzat ere interesgarri izan daiteke.

BASERRITARRA IDAZLE

Euskal Herrian hazien ekoizpenean esperientzia gehien duen pertsona izanena da, ziurrenik, Arribas, eta hori argi ikusten da liburuan, Badalek dioenez. Uztaro kooperatibako baratzeetarako haziak ekoizten hasi zen Arribas, eta gerora Aleka Euskal Herriko hazi ekologikoen elkarte sortu zuen. Badalek nabarmendu duenez, "*Kelo*-k Uztarorentzat haziak ekoizten zituenean, nik ikerketa txikiak egin nituen gaiaren inguruan, eta nahi-ko arraroa zen laborari agroekologiko batek bere haziak ekoiztea". *Kelok* bere esperientziatik eta beste iturrietatik



DAN BLANCO / ARGIA-CC-BY-SA

edanez osatu du liburua eta Badalen ustez, "horrek ematen dio balioa liburuari: gaur egungo laborari agroekologiko profesional batek idatzia izateak. Nabari du laborariak hainbat ezagutza nahasten dituela: ezagutza teknologikoa, iturri historikoak, zientzia sozialei eta humanitateei lotuak... eta, noski, ezagutza praktikoa. Liburuak baserritarren inguruan eraikia dugun iruditegia aldatzeko aletxo ere jarri du, nolabait".

HAZI EKOLOGIKOEKIN AZOKAZ AZOKA

Alekako haziak han eta hemen ibiltzen

da Arribas, Euskal Herriko azoketan. "Pertsona oso desberdinak hurbiltzen dira postura: badaude deus galdetu gabe datozen eskarmentu handiko baratzezainak, haziak erosi eta badoazenak; baina, jende asko izaten da, postuarekin topo egin eta bat-batean esaten duena: 'Ni landareak erostera ohituta nago, baina, agian ideia ona da haziak probatzea, ezta?'". Kuriositatea pizten zaien horientzat bazuen gidaliburu txiki bat Arribasek orain arte, baina, *Haziak* liburuan erantzunak modu sakonagoan topatuko dituzte kuriosek: "Liburu mardula da, bere argazki, taula, eta ilustrazioekin lagundua", dio Beizamako ekoizleak. ●

"HAZIAK" AURKEZPENAK

SORALUZE: Azaroak 5, 18:30ean.

LEITZA: Azaroak 6, 19:00etan Atekabeltz Herrigunean.

ARETXABALETA: Azaroak 14, 18:30ean, Arkupe Kultur Etxeko Zaraia aretoan.

GARTZAIN: Azaroak 15, elkartean.

SEGURA: Azaroak 17, Azokan.



Zigilu hauen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak. Jakinduria eta lana daude.

HEMEN DAGO NAFARROA



ReynoGourmet.com

“ ”

Haurrek errazago barneratzen dute magia eta ezustekoa

"Erraldoiei buruzko ipuina nahi dugu, haur txiki nahiz koskortuagoentzat". ARGIAk enkargua egin zien etxekoak ditugun Gorka Bereziartua kazetariari eta Adur Larrea ilustratzaileari. Emaizta: *Abentura erraldoia. Salba dezagun kalejira*. "Gauza berriak probatzeko atea apur bat zabaltzen saiatu gara".

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Liburuan, Alajaineta herriko jaiak datoz, baina aurten inork ezin ditu erraldoiak kalean dantzatu, eskerrak Izar, Ainubi eta Etxahun gai diren gauza miragarriak lortzeko, Kukutturlioren laguntzaz.

Batez ere txikien artean, fenomeno itzela dira erraldoiak, etxe askotan. Zergatik sortzen dute halako lilura erraldoiek?

Gorka Bereziartua: Aspalditik datorren figura da erraldoia, folklore tradizionalan dago, baina Greziako testu klasikotan ere aurki dezakegu, Herodotok aipatzen du adibidez Orestes erraldoiaren hezurak bilatu behar dituztela eta abar. Bada figura bat gizakia beti liluratu due-

na, garai bakoitzean aldaera ezberdinak izan dituen. Haurren artean fenomeno bat dira, baina baita helduen artean ere: gu baino handiagoak diren horiek, gizatasunik harago doazenak, hainbat kulturatan beldurra ere ematen dutenak, beste batzuetan lagunkoiagoak (euskal mitologian, esaterako, hor dugu Basajaun). Haurren ikuspegitik, gainera, eskala kontu bat ere bada: gurasoak zu baino handiagoak dira, baina erraldoiak are handiagoak.

Adur Larrea: Eta gurasoek baino hobeto dantzatzen dute, gainera. Erraldoietan denetarik duzu: pertsonaia ezagunak, mitologikoak eta beste, onak eta gaiztoak, eta baita pertsonaia "arruntak" ere: laboraria, arrantzalea... Ez dugu ahaztu behar



erraldoiekin batera buruhandiak egon ohi direla, eta elementu interesgarria dira baita ere, beti gibelera begiratzen joan beharra duzu, badaezpada atzetik etorri eta joko zaituzten.

Hain justu, buruhandiak ere ageri dira ipuinean; horiekin amodio-gorroto harremana izan ohi dute haurrek.

Larrea: Esango nuke gorroto maila asko txikitu dela. Lehen buruhandiek fuertea-go jotzen zuten, ongi jotzen zuten, horretara zeuden. Orain, aldiz, zuzentasun politikoaren munduan sartuegiak ez ote dauden. Batzuetan, goxokiak ere ematen dizkiete haurrei, apur bat etsigarria da...

**ADUR
LARREA**

**GORKA
BEREZIARTUA**





Bereziartua: Buruhandiekin gertatzen dena da ez dakizula oso ongi zein asmorekin hurbiltzen den; adinaren arabera ezberdina izan ohi da asmoa, baina harreman anibalente horretatik, buruhandiek eragiten duten beldur puntu horretatik ere ikasten da zer bait. Ausardia, beldurra, mugak... nahasten dira, festaren baitan.

Ipuineko erraldoi batzuk ezagunak egingo zaizkio irakurleari, beste batzuk ez. Oso erraldoi bereziak dituzte Alajainetan...

Larrea: Saltsa ederra dugu ipuinean, bai, eta erraldoi ugari aurki ditzakegu: Zumalakarregi, laboraria, Gasteizko erraldoieta-

“ ”

Zergatik ez uztartu euskal tradizioaren parte diren erraldoiak eta beste mitologia garaikideagoen parte diren figurak (Marveleko super-heroiak adibidez)?

Gorka Bereziartua

ko erregea... eta tartean daude asmatuak, Gorkaren hitzetatik abiatuta psikodelia pixka bat sarturik atera diren erraldoiak.

Bereziartua: Istorioa idazterakoan buruan nuena zera zen, zergatik ez uztartu euskal tradizioaren parte diren erraldoiak eta beste mitologia garaikideagoen parte diren figurak (Marveleko super-heroiak adibidez)? Eta hortik sortu dira Gonagorri Bionikoa, Marmitakoman...

Tradizioa dagoelako ukitzeko, aldatzeko, gaurkotzeko...

Bereziartua: Tradizioak berez eskatzen du sortzaile izatea eta momentu bakoitzera egokitzea, nahiz eta arlo guztietan

urriak 24 - azaroak 14

Egin eskaera!



errigora.eus



agerraldia
kulturaz plaza

ikastoleneikartea

aek

Sortzen

errigora

Eman bultzada,
indartu euskara

**Agerreko uzta
euskarari puzka**



bezala puristagoak eta gauzak aldatu-zaileagoak dauden hemen ere. Gauza berriak probatzeko atea apur bat zabaltzen saiatu gara gu.

Gorka, ohituta zaude helduontzako kazetaritza eta literatura egiten; ezberdin idazten al da umeentzat?

Bereziartua: Bai, hurrek beste begirada bat dutelako, gauza askotan helduona bezain kutsatua ez dagoena; helduok errealismo oinarritzko bat eskatzen diogu edozein istoriori, eta hurrei berriz hori ez zaie hainbeste inporta, magia eta ezustekoa errazago barneratzen dute eta erosoago daude horretan. Aldi be-

“ ”

*Lehen buruhandiek
fuerteago jotzen zuten,
orain zuzentasun
politikoaren munduan
sartuegiak ez ote dauden.
Batzuetan, goxokiak ere
ematen dizkiete hurrei,
apur bat etsigarria da*

Adur Larrea

rean, zailtasun bat ere badu umeentzat idazteak: haurrak irakurle oso exigenteak dira, argi adierazten dute zer gustatzen zaien eta zer ez, eta horrek errespetua ematen dit. Erronka hori izan da, publiko exigente hori gustura geratzeko moduko zerbait egitea.

Adur, gauza bera galdetuko dizut. Ezberdin marrazten da haurrentzat? Min handia egin du Disneyk?

Larrea: Helduontzako komiki edo ilustrazioak egiten direlarik, kode jakin batzuk jada barneratuak ditugu eta errazagoa izan daiteke horiekin lan egitea, adierazi nahi duzun hori uler dadin. Umeen aban-



“ ”

*Saiatu gara egiten
istorio dibertigarria,
haurrek gozatuko dutena,
irakurtzera eramango
dituena. Irakurketak
batez ere plazera izan
behar duelako*

Gorka Bereziartua



taila da irudimen oso malgua dutela, guk baino tarte zabalagoa uzten diotela imajinarioari eta guretzat ezinezkoa den zerbait aise uler eta barneratu dezaketela, nahiz eta esaterako racorda ez mantendu edota pertsonaia bera fisikoki aldatu. Beraz, abantaila da, marjenetik kanpo marrazten saia gaitezkeelako edota konbentzioak ez dituzulako zertan errespetatu.

Disneyk ere konbentzio batzuk segitzen ditu, ez naiz sartuko onak edo txarrak diren, egia da lan ikusgarria egiten dutela, bisualki biziki erakargarria, baina batzuetan mezua edo mamia, kontatu nahi dena, ez da oso originala, nahiz eta gero funtzionatu funtzionatzen duen.

Haurrak publiko exijentea direla aipatu duzue, eta hala ere, ez ote ditugun hainbatetan inozotzat hartzen.

Bereziartua: “Haurrentzako denez, edozerk balio du” ideia egon badago hainbatetan, eta ez da hala, segituan konturatzen zara gainera.

Larrea: Ez dakit tontotzat hartzen diren, baina egileok, gurasoek, irakasleek... orokorrean helduok batzuetan ez dugu gehiegi gogoetatzten, zer nolako bazka ematen diegun gure txikiei. Eta haiek, halere, bizkor aukeratzen dute, euren irizpideen arabera exijentzia maila dute. Ez dut esaten denek Roald Dahl irakurri behar dutenik edo Quentin Blakeren marrazkiak maitatu behar dituztenik, baina Dahl eta Blake gaur egungo haurrenganaino iritsi baldin badira zerbaitengatik da, gai dira gaur eguneraino heldu den begirada berezi bat transmititzeko.

Istorioak azpi-testu eta mezu ugari ditu atzean, hainbat kapa, baina ez da “liburu pedagogiko” horietako bat, espresuki zerbait lantzea helburu duen liburu horietako bat. Zer eskatzen diozue (haur) literaturari?

Bereziartua: Oso argi genuen ez genuela egin nahi liburu bat haurrei balore edo mezu jakin bat transmititzeko. Gero horiek egon badaude istorioan, baina egiten dugun guztian dauden gisan. Rafael Chirbes idazleak Donostian eman zuen hitzaldi batean zera esan zuen: nobela bat idazterakoan bi gauza ez zitzaizkiola inporta, estiloa eta ideologia, estiloa istorioak berak eskatuko dizulako eta ideologia nahigabe ere agertuko delako. Honetan ere hala da, gure pentsamoldea, balioak... hor daude, baina saiatu gara egiten istorio dibertigarria, entretenigarria eta haurrek gozatuko dutena, irakurtzera eramango dituen. Irakurketak eta literaturak hori izan behar duelako, batez ere plazera, aldaera eta kolore guztiekin.

Larrea: Eta plazera ez bakarrik haurrentzat, nik ere plazer handiz egin dut, eta marraztu bitartean bost axola haurrek zer pentsatzen zuten. Oso ongi pasa dut hau egiten.

Bereziartua: Prozesua bera ederra izan da. Testuaren eta irudien hartu-emanasko gustatu zait; pentsa, hasieratik bukaerara testua ia erabat aldatu da, eta onerako izan da. Pertsonaien izaera adibidez askoz argiago ikusi dut Adurrek irudi bihurtu dituenean, eta interesgarria da horrek nola eragin duen testuan eta istorioan.

Hain justu, gure semeari gehien gustatu zaion pertsonaietako bat ez zegoen istorioaren sorreran, prozesuan protagonismoa irabazten joan zen: Kukutturlio maskota.

Helduekin ere egin dut kontraste lana eta hara non guraso batek esan didan nolatan jarri duzun ume bat labanarekin jolastean, Adur.

Larrea: Umea mugikorrarekin marraztu banu, arreta emango ote zion? Batzuetan dagoen zuzentasun politikoa, hainbatetan guk geuk ditugun beldurrek sortua, gehiegizkoa iruditzen zait. Zorionez, haurrak ez dira guk nahi duguna, eta auke-ratuko dute laban batekin arkua egitea, errekan sartzea... gurasoak atzetik ibili gabe. Utzi bakean haurrak!

Bereziartua: Tira, behintzat labanak eman dio arreta eta ez udalaren kontra haurrek antolatzen duten matxinadak, kar, kar, kar. Kontuak kontu, helduek egingo dituzten irakurketetik harago, interesatzen zait haurrak identifikatuta sentitzea.

Helduez ari garelarik, Alajainetako helduak apur bat astunak dira?

Aspergarriak? Zer ikasi dezakete Alajainetako haurrengandik?

Bereziartua: Istorio honetan helduak nahiko pertsonaia ausenteak dira, eta iniziatiba eta protagonismoa haurrek dute, eurak saiatzen dira istorioan planteatzen den problema beren kabuz konpontzen. Zer egin dezakete haurrek, euren artean antolatuta, nahi duten hori lortzeko, kasu honetan kalejira salbatzeko? Hori da interesgarriena, helduak bigarren mailako pertsonaiak dira.



“ ”

Umeek guk baino tarte zabalagoa uzten diote irudimenari. Abantaila da, marjenetatik kanpo marrazten saia gaitezkeelako edota konbentzioak ez dituzulako zertan errespetatu

Adur Larrea

Larrea: Hanna-Barberaren marrazki bizidunetan, katua eta saguarenak, protagonistak txikiak direnez gizakia agertzen denean sarri gizakiaren hankak baino ez dira ageri, katua eta sagua ongi ikus daitezzen. Gure ipuinean, haurrak eta erraldoiak ditugu, panoramika handiagoa egin behar da marrazkian dena ongi kabitze-ko, zeren istorio honetan inportanteak dira bai txikiak, bai handiak, ez hainbeste erdikoak (helduak).

Bereziartua: Goitik eta behetik helduen mundua gainditzen duen istorioa da.



Saga baten hasiera da hau?

Bereziartua: Gustatuko litzaidake. Elkarlana oso polita izan da eta bai haur protagonistek, bai erraldoiek, bai Alajai-netak berak oraindik abentura asko dituzte gordeta.

Larrea: Hau aperitifa izan da, bada oraindik zer kontatua.

Liburua aurkezteko ekitaldi berezia antolatzen ari gara, Durangoko Azokan ere izango zarete...

Bereziartua: Modu oso bortitzean sartzaren beste mota bateko erreferen-

te kulturaleraz jositako ingurunean, gure istorioei ere lekua egiten saiatu behar dugu, eta horregatik animatu nahi ditut haur eta helduak liburu honi aukera bat ematera.

Larrea: Aurkezpenaz eta Durangoz gain, Hernaniko Komiki Azokan ere izango gara azaroaren 16an, liburua aurkeztu. Gogoratu Gabonak hortxe daudela eta opari perfektua dela hau. ●

* Liburua eskuratzeko, sartu ARGIAren Azokan (azoka.argia.eus) edo deitu ARGIAra: (0034) 943 371 545.



Hitz gezidunak

JANTZIRIK GABE HARRITUTA		JAKIN-NAHI RUTENIOA		ZIZTAREN ONOMATO- PEIA			BILGOR HAZI OLIOTSU		ALTZARI HANKADUN PERTSO- NAIAREN IZENA		SENTIKORRA EZ DENA, AXOLAGABE MUSIKARI DAGOKIONA
AZERI DAUKA							GAIZTO, BIHURRI ISRAELGO LE- HEN ERREGEA				
		IZENA (LA- BURDURA) OZEANO BAREKO HEGAZTI			TOKI HORRETAN ARRAZOIAK, ZERGATIAK		HIZKETA BERE ONDA- SUNETATIK BIZI DENA				
ALGARAKA, ZANTZOAK EGITEN PELIKULA								ZORTZI ERROMATAR ZENBAKIZ NAFARROAKO HERRIA			
				AZPIKOZ GORA JARRI NAFARROAKO HERRIA						NONGO ATZIZKIA DIPLOMA, AGIRI	
ARTEKA, TARTEKATUZ	LOALDI LILURA				ITXURA KEBIDETAKO ZIKINKERIA						IPURTZULOA
							AZAL LODI EDO GOGOR GOROTZA				
KANPO, LANDA IPURUA		ALDERANTZIZ XAKE JOKOAREN PUNTUAK						ERRUSIAKO IBAIA MUSIKA ESTILO			
				PRAKAGORRI, DEMONIO NEONA						KILOA DEZIMETRO	
PERTSO- NAIAREN ABIZENA ISILPEKO ELKARTEA					ZERBAITI KEA DARION ALDI IODOA						
								UGAZTUN MOTA			

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	8			5				7
2	7	4	3			8		
9				7				
6		1			7	5	3	2
	5	2	1		3	6	7	
	3			2	6	1		
5	2	6		4			9	
			7	3			5	
				6	5		8	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- 1. Toki honetan.
- 2. Edo-ren indargarria.
- 3. Substantzia kantitatea neurtzeko unitateak.
- 4. Fasea.
- 5. Ekartzen nau.

EBAZPENAK

1	8	2	5	9	6	7	4	3
9	5	4	2	3	7	6	1	8
6	1	6	7	3	4	5	9	2
5	NAKAR	3	4	1	7	8	4	5
4	ETAPA	8	5	5	2	8	3	7
3	MOLAK	8	7	1	9	3	6	7
2	EDOTA	4	5	2	1	9	3	6
1	HEMEN	2	7	4	8	1	3	6
5X5:	5	4	9	2	7	8	1	3

V	M	U	P	V	I	R	E	N	O	S	V	M
I	D	L	V	E	K	V	N	I	T	O	M	
K		U	R	B	V	E	D	V	E	R	O	
Z	V	J	V	K	R	E	K	O		J	V	
U	I	L	V	K	V	K	V	D	N	V	X	J
	V	J	N	V	L	P	O	V	I	B		
O	K		I	T	U	R	I	R	V	T	I	F
I	I	I	V	V	K	O	Z	J	N	V	Z	
V	S	V	T	O	S	H		Z	I		U	D
R	U	H	I	B				I	K	U	L	
O	M	V	S	E	S			Z	V	R	I	M
S		M	S					J		B		



Katarsi bat, norberarena

 UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Hau ez da zuzeneko kontzertuaren kronika bat. Izatekotan, oholtza azpian min indibidulek eta atsegin kolektiboak bat egitean gorpuztutako burutazioen errelato kaotiko bat da. Katarsi den ahots indibidual baina kolektibo horren eta teoriaren arteko elkartruke desordenatu bat. Norberarenaren faltan, besteen hitzei helduta katarsi propioa kontatzeko saiakera bat.

Heridas. Cruel. A golpe de maza.

Maria Zapatak, Judith Butler eta Ariana Caveroren lanetan oinarrituta, hauskortasunaren eta ahultasunaren arteko bereizketa egiten du, eta zaurgarritasuna hauskortasunarekin lotzea proposatu. Antropologoak dio zaurgarritasuna munduaren eraginpean modu erradikalean agertzea dela; kolpeak jasotzeko, baina baita laztanak ere. Zaurgarri izatea, beraz, errealitate krudelaren ostiak jasotzea da. Eta ondorioz, batzuetan, norbere lokatz sakonenetan igeri egin ezinda hondoa jotzea.

Ez zaude, lagun.

Gogorrena, agian, hondoa jo ondoren berriz altxatzeko heldulekurik ez ikustea da. Laztanduko zaituen norbait, edo, behintzat, zeure zauriak miazkatzen ari zarela ondoan eseriko den norbait.

Final.

Baina amaiera ez dator lurra jo duzula sentitzean. Amaiera dator lurrera errenditzean. Errenditze hori da zaurgarritasunaren kontzientzia hartzea eta berau onartzea. Eta horri darraio sosegu moduko bat, errenditzearen egonarria. Eta sosegu horrek irekitzen du arrakala bat botata zauden lurrean. Eta arrakala horrek uzten dizu ikusten badirela helduleku batzuk, ordura arte ikusteko gai ez zinenak.

Alienazioaren seme-alabak. Kamarada.

Heldulekuak dira hitzak, zureak ala besteak, melodiak, eta lurrera errenditu diren beste batzuen begiak. Eusten zaituztenak. Ariana S. Cotak argudiatzen du ekiteko gaitasun kolektibo egoera

KATARSI

NON: Iparragirre Rock Elkarte (Gernika).

NOIZ: Urriaren 5ean.

NON: Eran.

zaurgarria onartuta bakarrik gara daitekeela, elkarrekin egotearen eta elkarrekin gauzak egitearen bitartez. Synt-punk tristoi, gordin eta dantzagarria egitea, entzutea edo dantzatzea, adibidez.

Hil eta gero bizi.

Hondoa jo eta altxatu ostean datorrena ez da zoriontasuna. Bizitza da, bere kolpe eta laztan berriekin. Baina Zapatak dio zaurgarritasunaren kontzientzia dela sendotasunik handiena. Zaurgarritasun partekatua, indar gotorlekua. Hargatik ikusten da, beharbada, sendotasuna ohol-tzan. Katarsi indibidualen batuketaren ondorengo sendotasun bat, sintetikoa, hauskorra eta konplizitate musikalez bete. Laukote batetik, lau banakora tarte-ka, eta laukotera bueltan. Eta entzuleok hargatik egin ditugu gure minen adierazpide taldearen LP bakarreko abesti guztiak. Eta hargatik egiten diogu, errerika bakoitzean, krudeltasunari dantza eta, Asun Pié Balaguerrek esan bezala, zaurgarritasunaren matxinadari gorazarre. ●



LIBURUA

Zentauroak, unikornioak...



AMAIA ALVAREZ URIA

Miren Billelabeitia institutuko irakaslea da, literaturzalea eta Literatura unibertsala irakasgaia ematen du duela zenbait urtetatik. *Norberak maite duena* liburua argitaratu zuen Pamielarekin 2022an eta 2023an Euskadi Saria eman zioten lan horrengatik.

Saiakera lan horretan bere ezagutza eta esperientzia partekatzen ditu; ikasleekin, besteak beste, *Mila gau eta bat gehiago*, *Hamlet*, *Metamorfosia* edo *Gela bat norberarena* irakurtzean gertatu zaizkionak eta horien inguruko ondorioak.

Egileak bere burua deskribatzean irakasle eta irakurle dela dio, eta bi izaera horiek definitzeko "ikasle nekaezina" hitzak erabiltzen ditu. Horrek erakusten digu berarentzat zein garrantzitsua den literatura irakasten duena etengabe bilatzen, probatzen eta egokitzen ibiltzea.

Klasikoak dira klaseratzen dituenak, eta horren inguruko aurreiritziak baztertzen saiatzen da: ezezaguna eta 'zaila' dena erronka eta aurkikuntza izan daitezke bidean lagunduz gero; literaturzaletasuna testu errazen ulermenara mugatzen badugu ez da literatura gaitasunik edo ikuspegi kritikorik lantzeko aukerarik izango; klasikoak gomendagarriak dira belaunaldi guztiekin, gazteekin ere bai, konektatzeko eta hunkitzeko aukera ematen dutelako pixka bat landuz gero.

Euskaraz irakurtzeko eta hitz egiteko oztopoak badirela adierazten du, baina literatura solasaldiak aukera ederra dira ikasleek hizkuntza praktikan jar dezaten eta jarduna aberasten joan daitezen, bai irakurtzean, bai eztabaidatzean, baita idaztean ere.



ZUZEU.EUS


**NORBERAK
MAITE DUENA.
HITZA GOGOAN,
IRAKURKETA BIZIZ**

MIREN BILLELABEITIA

PAMIELA, 2022

Irakurtzeari begira, solasaldiak edo tertuliak maite ditu: irakasleak gomen-datutako liburu osoak kapituluka irakurriko dituzte etxean eta klasean elkarrekin partekatuko dituzte zalantzak, pasarte hautatuak eta euren bizipenekin egindako loturak aletu eta kateatuta. Azkenean, gogoeta egiten trebatuko dira eta literaturaren ekarpenez goatzera helduko dira, "lotura komunikatibo eta komunitarioei esker".

Izan ere, "gizarte irakurleago bat" lortzea denon ardura da, ez soilik hezkuntzarena. Bere ustez kirolaren sustapenarekin bezala jokatu beharko genuke literaturarekin: "Zeren ederki sendotu baitugu latinezko esaera zahar-raren *corpore* aldea, baina *mens*-ari dagokionean, pixka bat atzera geratu garelakoan nago". ●



MUSIKA

Zorroztu ezpatak!



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

XALBA RAMIREZ

Pop melodia itsaskorren gerrillariak. Vietcong txikiak nola, bata bestearen atzetik, tranpekin edo tranparik gabe berriz harrapatzen gaituzte Tatxersekoek. Himnogintzaren maisuak, lehen entzunaldian hala nabaritu ez arren, denboran iraungo duen beste disko bat da honakoa, formazioan aldaketa eta guzti (Sergio Devesa baterian).

kostatuko zaigu mamira heltzea. Geruzak batzuetan estali egiten baitu mamia.

Tatxersekoak ez dira bakarrik melodiaren artisauek. Iruditerian ere, goi gerlariak dira tatxerstarrak. Aurreko diskoan “gurea da lore sorta!” zen kontsigna, oraingoan, “ezpatak zorroztu!”. Kantu guztiek dute ezpatei distira ateratzearekin zer ikusirik: guda presta-



EZPATEI DISDIRA!

TATXERS

HUMO INTERNACIONAL, 2024

Disko honetan soinua landuagoa da. Bizpahiru gitarra entzun daitezke, sintetizagailuren bat, efektuak eta abarrak. Aurreko diskotik bereizteko balio izan die, baina hasiera batean apur bat kriptikoagoa da, eta akaso gehiago

tzearekin, bakea irabazteko. Eta aldi berean, askotarikoak dira tematikak eta paisaiak. Irudien zizelkari apartak! Akaso zarata gehiegirik gabe ondo posizionatzen den talde eredugarrietako bat da Tatxers. Euskal Herriko eta Espainiako *underground* eszenak berdin maite duen taldea (ez dute alferrik argitaratu hau Humo Internazionalekin). Ez dute horrelakorik aldarrikatu beharrik, baina ez dituzu ikusiko euskal farandula berrian apur eske, promozio eta marketingaren esklabo. Ez dute horrelakorik aldarrikatu beharrik, baina klase kontzientzia argi dute.

Bada, halaxe, berriz ere, zer zortekoak gu Tatxersen garaikide izateagatik: “Eta esaidazu, gerra berriendako arma zahar horiek ez dutela balio. Eta esaidazu, bakea egiteko, nora joango garen armak zorroztera”. ●

Osasun mentala zaintzeko lanik hoberena

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ekitaldia aurtengo Osasun Mentalaren nazioarteko egunaren harira antolatu zuten eta mikrofono bat zain zeukan. Entzuleak, kamerak, kazetariak. Honezkero ohituta zegoen. *Exordium* indartsu batekin ekin zion: “Bizirauteko goaz lanera ala proiektu batean parte hartzeko?”. Entzuleen artean zegoen aditu baten liburutik hartutakoa zen galdera, behar bezala aitortu zion: “Seguru nago bere hitzekin hobeto ulertuko dugula lan-giro zailen eta osasun mentalaren artean dagoen lotura”.

Ondoren, garai batean bere ofizioa izan zenaz hizketan hasi zen: kazetaritzaz. “Hedabideetako profesionalen %60k antsietate-maila handiak dituzte eta bostetik batek depresio-sintomak dauzka”. Lan Ministerioak egindako txosten bat ere aipatu zuen. Dokumentu horren arabera, osasun mentalagatik izandako bajen errekorrak hautsi ziren iaz. Lan prekarioetan ari direnen artean inpaktua handiagoa dela azpimarratu zuen.

Arazoaren larria neurtzeko bi datu gehiago: “Lehenbizikoa, hamar laguntetik hiruk psikofarmakoren bat hartzen dute; eta bigarrena, baliabide gutxiago dituzten pertsonak lau bider gehiago kontsumitzen dituzte psikofarmako horiek”. Bukatzeko, problemaren aurrean hartzen hasiak diren zenbait neurri aipatu zituen, gaiari buruzko elkarriketa publikoak aurrera egin behar duela azpimarratu; “pazientzia, informazioa eta ulermena” ahoskatu; eta *acta est fabula, plaudite*.

Iaz ekitaldi beraren hasieran entzuleei eskaini zien rapak baino titular gutxiago lortuko zuen oraingoan, baina egina zegoen eta, hara, buruhauste bat gutxiago.

Auto ofiziala zain zeukan. Mercedesaren atzeko eserlekuarekin kontaktua. Serotonina. Inon ez zen hain seguru sentitzen. Arrankatu bezain laster kendu

zituen takoidun zapatak, dudarik gabe bere lanaren gauzarik okerrera. Tira, hori, eta zurrumurruak, esamesak, kontakatilukeriak: telefonoa hartu, eta bi egun lehenago senarrak mundu guztia-
ren aurrean besoan eman zion zapladari buruzko notifikazio berriak ikustean, hasperen egin zuen.

Jendeak ez dauka beste ezer komentatzeko, antza. Baina bueno, zuk segi zurean. Aste honetan ez dago beste ezer agendan behintzat, a ze deskantsua. Bi agerraldi aste bakarrean, joder, geroz eta okerrago gabilta. Ea orain *gym* pixka batekin neke sanoago bat sartzen zaidan gorputzean. Gaurkoa, behinik behin, ederki geratu da, neurrian. Osasun mentala, alajaina, “proiektu batean parte hartzea”. Eta serio atera zaizu, *tía*. Badakizu, bai, “proiektu batean parte hartze” hori zer den, zenbat miseria irentsi zenituen erredakzioan, zenbat ordu eta zenbat zangotraba informatiboak aurkeztera iritsi arte. Eskerrak utzi zenuen. Lan horretan depresio bat ha-

rrapatzen ez duenak politikan bukatzen du, eta diputatu putapeniko batek ze gutxi agintzen duen ikusita, ez da errenta. Osasun mentala: barrez lehertzekoa da. Baina klaro, hori ezin duzu esan. Zu beti neurrian, asko pasa gabe. Ondo egin duzu Vara horren liburua aipatu ondoren Graeberren *Bullshit Jobs* ez gomen datzen, txistea errazegi jarriko zenien denei. Baina, egia esan, fartsa hau guztia esplikatzeko azken urteetan publikatu den gauzarik potenteena da. Zuk dakizu, beste inork baino hobeto, gaur egungo lanpostuen erdiak ezertarako balio ez duten kaka zaharrak direla; nola ez da ba jendea burutik olioak galtzen hasiko? Baina hemen gabilta, jakingo ez bage-nu bezala. “Proiektu batean parte hartu”. Izorrai. Bueno, iristen ari gara eta, bridatu pentsamendu hauek: ez zara zu izango erregea biluzik dagoela esango duena. Zein eta zu, lanpostu tonto guztien artean hoberena lortu zenuena. Zuk segi zurean, Letizia. Ea hurrengo urtean zer kontatzen diezun osasun mentalaz. ●



Zarataz

Josu Ximun Billelabeitiarekin

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)



Urriak 28, astelehena, 20:00etan **argia.eus**-en



Abentura erraldoia

Salba dezagun kalejira

Gorka Bereziartua eta Adur



Eskaintza berezia Urriaren 17tik 31ra

ARGIAkoa eginez gero jaso etxean **opari**.

ARGIAko kide bazara, jaso **10€**-an.

Bidalketa gastuak **5€**. Bidalketa doan

40€-tik gorako erosketetan.

Erosketak **BIZUM** bidez ordaindu daitezke

Ipuina
12€

azoka.argia.eus